

Herririk Herri |4|
Mallabian hiri-hondakinik ez dauela
jasoko dino Betearte enpresak

Ekonomia |10|
Autoak harrapatuta hil da Secor
enpresako behargin bat



Berbaz |9|
Ana Urkiza: "Geroago eta emakume
gehiago gabiliz elkartean lanean"

Agarreko industriagunea atzera bota dau Aldundiak

> Zaldibarko Udalaren birkalifikazio
eskaria ez dau aintzat hartu Aldundiak

> Agarre Bizirik plataformak dinonez,
erabaki hau "denon garaipena" da

3

Mehatxu "faxistak"
jaso izana salatu
dau Aralarrek

Durango• Aralarreko eta Iratzarri
gazte erakundeko kide Markel Gan-
boak asteburuan jasotako "meha-
txuak" salatu ditu. "Oinarritzko
eskubide zibil eta politikoak urra-
tzen" ditueen mehatxuok, "faxis-
tak eta homofoboak" direla azal-
du dabe Aralarrek eta Iratzarrik.
Elkarretaratzea deitu dabe bihar-
ko, 12:00etan, Andra Marian. **6**

Juntetxe ingurua
zabaltzeko eskatu
deutse alkateak
Batzar Nagusiei

Abadiño• Gerediagako baseliza-
ren aurrean eskainitako prentsau-
rrekoan azaldu dau Jose Luis Nava-
rro alkateak Batzar Nagusiei egin-
dako proposamena. Juntetxearen
"ingurune enblematikoa" herrita-
rrendako itxita egoteari "ulerga-
txa" erizten deutso alkateak. Egu-
nez bisitariendako zabalik lego-
ken inguruaren mantenimendua
eta zaintza Udalak bere kargu har-
tzea proposatu deutse alkateak
Batzar Nagusiei, eskutitz batean.
Aurretik be "saiakera" egin daue-
la eta "ez dauela erantzunik jaso"
salatu dau Navarrok.

2



Iban Gorriti

•Berriz

Hautzaindegiko zerbitzuagaz
kexu agertu dira gurasoak **3**

•Iurreta

Alokairuan bizi direnendako
diru-laguntzak lotuta **6**

•Elorrio

Intxortak moztorro jaiagaz ekingo
deutso ikasturtetari **4**

•Atxondo

Urtea amaitu aurretik Hirigintza
Plana osatu gura dabe **7**



Sagasta auzoa • Anbe Goikoa
48220 ABADIÑO • Bizkaia
Tel.: 629 143 944
IBAI URIEN

**APAINGARRIA ETA
INDUSTRIALA**

- Fatxadetarako proiektu bereziak
(inpermeabilizazioak, barnizatuak, ...)
- Era guztietako barne eta kanpoko
dekorazioak
(lokalak, tabernak, etxebizitzak, ...)

HERRIRIK HERRI >

ABADIÑO



Gerediagako juntetxearen ingurua egunez bisitatu ahal izatea gura dau Udalak. David Maeztu

Juntetxearen ingurua zabaldu daien eskatzeko agerraldia

“Ingurune enblematikoa” herritarrei itxita egotea salatu dau Navarro alkateak

Aurtengo apirilean bidali dauela azkena, baina lehenago be Gerediagako juntetxe bihurtutako San Salvador ermitaren ingurua herritarrei zabaltzeko eskaria hainbat aldiz egin deusala jabetzan daukan Bizkaiko Aldundiari azaldu eban atzo Jose Luis Navarro Abadiñoko alkateak. “Nekatuta nago erantzunikez jasotzeaz”, salatu dau.

Gerediaga auzoko “inguru enblematikoa herritarrendako itxita egotearen” zentzugabekeria azpimarratu dau Navarrok. Balio historiko handiko espazioa eta XVI. mendeko ermita herritar guztiek gozatu daien alkatearen eskariagaz, Hamabi Harri auzo elkar-teak eta Gerediaga elkar-teak be egin dabela bat azpimarratu dau agerraldi berean Navarrok.

Egunez bisitarien zabalik legokeen inguruaren mantenimendua —garbiketa— eta zaintza —udaltzainen errondak— Udalaren kargu joango litzakezela proposatu deusola Bizkaiko Aldundiari be azaldu dau.

Mantenimendu eta zaintza lanen ardura Udalak hartzea jasotzen dau Aldundiari eginiko proposamenak

Bizkaiko Batzar Nagusietan ordezkariak daukien alderdi guztiei bidali deutse Gerediagako ingurua zabaltzeko bere eskaria alkateak, eta, azaldu dauenez, azken helburua bere eskaria Bizkaiko Batzarreko plenoan eztabaidatu daiei da. ■ I.E.

Udalak “gehiago” egin beharko leukela dino Hamabi Harri-k

Gerediagako auzokideak batzen dituen Hamabi Harri elkar-teak harriduraz hartu dau alkateak emondako prentsaurrekoa: “Geu izan gara urteotan alkateari Batzar Nagusietan eskaera egin daiala eskatzen ibili garenak, eta geuri ezer esan barik egin dau agerraldia”, azaldu dabe. Udala gai horretan ez dabilela nahikoa egin be kritikatu dabe. Azken urteotan eskutitz bi idatzi eta batzar bat baino “gehiago” egin zeikiela azaldu dabe.

Auzotarren berbatan, Gerediagako ermita ingurua bertakoen “bilgune” izan da beti, eta itxita egotea onartezina dela deritzoe. Hainbeste diru inbertitu den proiektua zertarako egin daben be galdeztzen dabe: “Ingurua hondatzen dabilen bitartean, sei urte baino gehiagoan batzar gitxi egin ditue”.

Matienako kale nagusia atontzen jardungo dabe datorren urte hasiera arte

Autoentzako espazioa murriztu eta oinezkoendako bideak hobetzeko lanean dabilz ikasturte hasieratik

Abuztuan hasi zitueen lanekin aurrera darraie Traña-Matienako Trañabarren kale nagusian. Tabernazaharra pareko biribilgunean eta Zelaieta eta Matiena artean dabilz lanean orain. Lanak amaitzen dituenen, auzoak lotuko dituen bidegorria, eta Matiena zeharkatzen, “lau erreilekoa barik, bi erreileko errepidea” izango dela esan dau Jose Luis Navarro alkateak.

Errepidea estutzea, espaloiak zabaltzea eta zebra-bideak altxatzea jaso dabe proiektuan

Errepidea estutzea, espaloia zabaltzea, eta zebra bideak altxatzea jasotzen dau besteak beste proiektuak. Errepidea ezeze, “kalea” izango dela aurrerantzean Traña-Matienako nagusia nabarmendu dau Talde Independienteko alkateak: ibilgailu pisutsuek galarazota izango dabe kale horre-

tatik igarotzea, eta bi norabide-takoa izan arren, kale estuagoa izango da Trañabarren. Bidea estutu arren, “autoen aparkalekuak ez dira gitxituko”, dino Navarrok, “alderantziz, orain baino aparkaleku gehiago izango da Trañabarren kalean”.

Auzoetako bidegorria

Trañako zubian hasi eta herriko auzoak lotuko dituen ibilbidea osatuko dauen bidegorria egiten dihardue Abadiñon. Traña-Matiena, Astola, Zelaieta eta Muntzaratz auzoetatik igaroko da bizikletentzako ibilbidea, eta Durangotik etorriko den bidegorriagaz lotura egingo dau. Abadiñarren segurtasuna eta bizi-kalitatea hobetzeko aukera legez aurkeztu dau datorren urtean amaituta egongo den bidegorria. ■ I.E.

Trañako zubian hasi eta herriko auzoak lotuko ditu bizikletentzako ibilbideak

EAJ: “Aisialdi gunea zaharren egoitza baino garrantzitsuagoa da?”

Jeltzaleen arabera, Abadiñoko alkateak “ez dauka gizarte politiketan inbertitzeko asmorik”

Abadiñoko EAJk gogor kritikatu dau Jose Luis Navarro alkateak “mendekotasuna daukien nagusiak hartuko dituen egoitzaren proiektuagazko daukan jarrera”. Jeltzaleek prentsa oharrean jakinarazitakoaren arabera, “Bizkaiko Foru Aldundiak Abadiñoko Udala aukeratu eban egoitza erai-

EAJ: “Traña-Matienako aintzira artifizialaren aurretik proiektu garrantzitsuagoak dagoz”

kitzeko, krisialdi egoera honetan lehentasuna daukalako gizarteak”. EAJk idatzian salatu dauenez, alkateak “ez dauka gizarte politiketan inbertitzeko asmorik”. Traña-Matienako aisialdi gune-ko aintzira artifizialari deritzoe “baiezta pen horren adibide argia”.

Herrian proiektu “garrantzitsuagoak” dagozela dino jeltzaleek, eta horrek “itxaron zeikela”. “Orain inoiz baino gehiago, herritarrek gizarteari ongizatea ekarriko deusteen ekimenak eskatzen deusteez erakunde publikoei”.

Abadiñon egoitza eraikitzea gura izanez gero ezin dela “gehiago atzeratu” deritzoe. Nagusien egoitza herriak eta eskualdeak behar dabela nabarmentzeaz gainera, EAJk gizarte politikak sustatuko dituen proiektuak babestuko dituela dino. Alkateari eskatu deustie “beteko ez dituen adierazpenak alde batera itzi, eta lanean hasteko”. ■ J.G.

EAJ: “Abadiñon nagusien egoitza eraiki gura izanez gero, proiektua ezin dabe gehiago atzeratu”



ZALDIBAR

“Ezezko borobila emon deutso Aldundiak Udalarari”

Agarre eta Arriondoko nekazal eta baso lurretan industriagunea hartzeko Udalak egindako birkalifikazio eskaria ez dau aintzat hartu Aldundiak



“Ingurumenaren defentsan jarraituko” dauela adierazo dau Agarre Bizirik Plataformak. I.E.

Zaldibartarren parte-hartzea-gaz ingurumenaren alde egiten jarraituko dabela azaldu dabe Agarre Bizirik-eko kideek; orain urte bi Agarre eta Arriondo inguruko lurak industriagunea hartzeko birkalifikatzea eskatu eban Udal Gobernuaren egitasmoaren kontra sortu eben plataforma.

Lur horreen kalifikazioa baso eta nekazal lur lege mantentzea eskatzen eben orain urte bi egindako elkarretaratze, manifestazio eta agerraldietan plataformakoek. “Zaldibartarren preminak betetzeko behar beste industria lur badagoela” eta industriagune eta zabortege batek herrian eta inguruan eragingo leuken kalte ekologikoa jasanezina litzatekela azaldu eben Agarre Bizirik-ekoek.

Orain, Agarre Bizirik plataforma eratu eta bi urtera, datozen 16 urteetan Bizkaiko lurralde anto-

lamenduari buruz Foru Aldundian osatutako Zati Planean, “herri plataformak baliatu zituen argudio bereberekin ezezko borobila emon deutso Udalararen 8 hektareako egitasmo txikitzaileari”, azpimarratu dabe taldekideek prentsaurrekoan. Bizkaiko Aldundiaren Zati Planean ez ei da Udalak egindako lurak birkalifikatzeko

Herrikideak zoriondu ditue, Agarren industriagunerik ez egitea zaldibartar guztien garaipena dela azpimarratuz

“Herritarrek zenbat eta gehiago parte hartu, orduan eta gatzagoa izango da asmo txikitzaileak aurrera eroatea”

eskaria aintzat hartzen. “Datozen 16 urteetarako, gaur egun industriara bideratuta dagoen lurrekin nahikoa dauela Zaldibartarren” adierazo ei dau Aldundiak be, Plataformako bozeroaleak dinonez.

Herrikideak eskertu eta zoriondu egin ditue Agarre Bizirik taldekoek agerraldian, eta gogorra ekarri dabe eurek bultzatutako sinadura bilketan ia seirehun herritarren babes jaso ebela hilabete batean. Agarre Bizirik plataformaren orain arteko ibibideak erakutsi dau, dinoenez, “herritarrek zenbat eta gehiago parte hartu, orduan eta zailago izango dabela agintariekin asmo txikitzaileak aurrera eroatea”.

Agarre Bizirik sortu zeneko helburua lortu arren, plataforma ez dabela desegin aurreratu dabe, eta “ingurumenaren defentsan jarraituko” dabela. ■ I.E.

BERRIZ

Haurtzaindegiko gabeziak salatu ditue gurasoek

Egunean zehar bero-hotz kontraste handiegia ei dago; irtenbidea eskatu dabe, lehenbailehen

88 sinadurek babesten daben eskakizun sortagaz agertu ziren haurtzaindegiko hainbat erabiltzaile eguzteneko udalbatzarrean. Haurtzaindegia hainbat gabezia ei ditu: itokinak, garbiketa arlokoak... Halan be, gurasoak gehien kezkatu dituen gela batek bestera eta goizetik arratsalde-eremoten den hotz-beroaren kontrastea da. Hori lehenbailehen konpontzeko eskatu dabe, hurrendako arriskua ekiditeko.

Hezkuntza Batzordeko lehen-dakari lege, Puri Perezek jaso eta irakurri zituen kexak, udalbatzarreko egunean. Eskaerez gainera, testuak salatzen dauenez, hezitzaileak saiatu dira arkitektoagaz, eraikitzaileagaz eta Udalgaz berba egiten, “baina ez deuse kasurik egin”. Hori ez dela egia erantzun eutseen bai Jabier Azpitarte alkateak bai Gorka Camara Hirigintza Batzordeko lehendakariak. “Arazo askoren barri oraintxe izan dot. Hotz-beroaren arazoaz kalean

enteratu nintzen, Udalean ez da eta idatzirik egon. Erabakiak garaiz hartu dira; halan be, erantzuleak eta konponbideak bilatzeko lan egingo dogu”, argitu eban Camarak. Dena dela, hasi dira lanean. Iraileko komisioan jardunbide-protokoloa ezarri eta tenperatura aldaketak neurtzeko probak egitea erabaki eben.

Udal arduradunak arkitektoagaz eta eraikitzaileagaz batzartu ziren atzo. Gurasoak uneoro informatuta izateko konpromisoa behartu eben udalbatzarrean.

Tasak, bere horretan

Bestalde, 2010eko tasa gehienak bere horretan mantendu ditue eta ezker abertzaleak igaz proposatutako hobariak gehitu, arazo ekonomikoak dituenendako. ■ J.D.

Udal arduradunak arkitekto eta eraikitzaileagaz batzartu ziren, atzo, arazoa aztertzeko



Irailean ireki eben Eguzkilore haurtzaindegi barria.

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

DIBA

KOOPERATIBA

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

Podología

• Oinetako patologiak
• Neurria egindako plantillak
• Oinetako beste hainbat gaitz

Podología

Herriko gudarien kalea, 10 - behe
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

■ MALLABIA

Hiri-hondakinik ez dabela hartuko dinoe Betearteko jabeek

Areitioko hondakindegian hiri-hondakinik ez hartzeko konpromisoa idatziz sinatu dabe

Areitioko hondakindegia Gipuzkoako hiri-hondakinak jaso zeikezela publiko egin eban, orain bi aste, Aitor Loiola alkateak. Hondakin industriak hartzeko baimena daukan Betearte enpresari hiri-hondakinik ez jasotzeko konpromisoa idatziz sinatzeko eskatu eutsan.

Betearte osatzen daben Befesa, Urbaser eta Ekonor enpresetako arduradunek joan zen astean idatziz helarazi eban hiri-hondakinenguruko erantzuna Udalera: "Administrazio Kontseilu honek aho batez erabaki dau hiri-hondakinak hartzeko aukera bertan behera iztea".

Aitor Loiola: "Hiri-hondakinik ez hartzeko konpromisoa lorpen handia da, herritarren presinoaren ondorioa"

A. Loiola: "Usurbilen martxan jarri daben zabor-biltze sistemaren antzeko ekimenak bultzatu beharko litzateke"

Betearteko zuzendariak be hiri-hondakinik jasotzeko "ezelako asmorik" ez daukiela idatziz bidali eban, irailaren amaieran, Udalera. Gipuzkoako eta Bizkaiko erakunde publikoetatik ez dabela "ezelako proposamenik" jaso azaldu dau idatzi horretan.

Herritarrekin bilera

Hondakindegia gaiak herritarren artean "kezka" sortu dau. Udalak bilera deitu eban Kultur Etxean, joan zen egunean, "argibideak emoteko". Hainbat herritar hurre-ratu zen hondakindegia inguruko batzarrera. Alkatearen berbatan, "lorpen handia" da Betearteko bazkideek hiri-hondakinik ez jasotzeko konpromisoa hartzea, "herritarren presinoaren ondorioa"; "Hilabete dokumentu horren zain egon eta gero, batzarraren aurreko egunean heldu da". Gai "garrantzitsuen" inguruan herritarrei informazioa emoten jarraituko dabela azaldu eban Loiolak.

Usurbilen martxan jarri daben zabor-biltze sistemaren antzeko ekimenen alde agertu zen alkatea, gaur egun Diputazioetatik proposatzen dituen aukeren "alternatiba" moduan. ■ J.G. / P.M.



Hainbat herritarrek hondakindegia gaineko argibideak ezagutu gura izan zitueen.

■ MAÑARIA

Biodibertsitate aberatsa mantentzearen garrantziaz

Euskadi 2000 sareak antolatuta, erakusketa, berbaldia eta antzerki emanaldia aukeran

Bizitzeko tokiak, pertsonentzako tokiak goiburua daroan erakusketa ibiltariaren geldialdia izan da asteon herrian. Euskadi Natura 2000 Sareak antolatutako erakusketa, publiko orokorrari baina, batez be, EAEko naturgune babes-tuen inguruko herrietako—Mañaria, kasurako—biztanleei zuzenduta dago. Urriaren 14tik 18ra bitartean, Errekondo tabernan bisitatu leiteke erakusketa. "Gure lurraldearen biodibertsitate galea geldiarazteko kontzientzia piztea eta herritarrek biodibertsitatea mantentzearen garrantziaren inguruan gogoeta egitera bultzatzea" da erakusketaren helburua.

Erakusketa osatzen, eta jardunaldi berean, berbaldia be egin eban atzo Udaletxeko pleno aretoan, eta bihar, urriaren 17an, 18:00etan plazan, *Super-bios martxan* antzezlana izango da gerturatzaren direnentzat aurkeran.

Aniztasun biologikoa mantentzearen garrantziaz jabetu gaitezen lortzea da ekimen guztion izateko arrazoia. ■ I.E.

Euskadi 2000 sareak antolatuta, antzerki emanaldia izango da urriaren 17an, herriko plazan

■ ELORRIO

Mozorro jaiagaz hasiko dau Intxortak aurtengo sasoia

Mendebaldeko erara jantzita joateko gonbita egin deutsee, biharko, herriko gaztetxoek

Intxorta astialdi taldeak sasoi hasierako ekitaldia prestatu dau bihar Iturri kultur etxean. Intxortak sei urtetik hamaseira arteko gazteak batzen ditu, eta gaztetxoek astialdi taldera erakartzea da ekimenaren helburu nagusia.

Lokalean jolasak eta txokolatada egingo dabe; kalera be irtengo dira askotariko jolasak egiten

Beraz, denak gonbidatuta dagozen arren, batez be, sei eta zazpi urte arteko gaztetxoek zuzenduta dago biharko ekimena.

Mendebaldeko erara (cowboy, indiar...) mozorrotuta joateko gonbita egin deutsee gaztetxoek. Iturri kultur etxean daukien lokala be modu horretara deko-

ratuko dabela jakinarazo dabe Intxortako kideek. Jaia 16:00etan hasiko da, eta 20:00etan amaitu. Urtero legez, lokalean bertan askotariko jolasak prestatu ditue. Arratsaldean zehar kalera irtengo dira, eta han dantzak eta jolasak egingo ditue. Kultur etxeko lokalera bueltan, txokolatada egongo da bertaratzen diren denentzat.

Jaiaren amaieran eskaera-orri bana banatuko deutsee gurasoei, euren seme-alabak Intxorta astialde taldera batu gura badi-tue. Gaur egun, 100 gaztetxo inguru dira Intxorta astialdi taldean batzen direnak. ■ J.D.

Gaur egun, 100 gaztetxo inguru batzen ditu Intxorta astialdi taldeak

■ IZURTZA

Bizkaiko elizbarrutiagaz hitzarmena sinatu dau Udalak

Elizaren inguruan Udalak egiteko dituen lanak finantzatzeko diru-laguntza jasotzeko baldintza, obrak otsailerako amaituta egoteaz. Orain arte lanak zehaztatu dituen Udalaren eta Bizkaiko Elizbarrutiaren auzia, hitzarmena sinatuz itxi dabe bi aldeek.

Joan zen barikuan, gobernu taldeak eta EAJk be onetsi eban sinatutako hitzarmena

Elizaren inguruan parke bat sortu eta BI-623 errepiderako sarbidea atontzeko lanak zehaztutako epeen barruan hastear dagozelako pozik agertu da Udal Gobernuak. Joan zen barikuko udalbatzarrean be emon eutsien oniritzia hitzarmenari; aho batez onartu eban hitzarmena.

Elizbarrutiagaz akordioa lortuta, laster hastekoak dira, beraz, San Nikolas elizaren ingurua atontzeko lanak. ■ I.E.

goizeko 08:00etatik gabeko 21:00etara
zabalik

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

{ odontologia orokorra eta espezialitateak }

muruetatorre-bloque 2 - C bajo 48200 durango tel. 94 681 99 51

gremioen koordinazioa

urutiaga

Bainugelarako komun ontziak eta berogailuak
azulejo, zoladura, teila, zeramika, hormigo
erakusketa, salmenta eta ipintzea

Solaguren kalea, 3 - tel./faxa 94 681 44 74 - MATIENA (Abadiño)



Tapizak
Ehunak
Paperak
...
Giro
freskoak



Giro argitsuak, kanpora ematen duten lehio handiekin eta integralak



Haurrentzako logela lasai eta garbiak zurezko akabera zaharkitu eta zuriekin, giro argitsu eta atseginak sortuz, atsedenerako egokiak



Mikeldi 6 • 48200 Durango • Tel.: 94 681 38 95

DIURRETA

Diru-laguntzak zehaztuta, etxea alokatuta bizi diren gazteentzat

Aurten lehenengo biderrez lotu ditue eta 60.000 euroko atala gorde dabe

Aurten lehenengo biderrez etxebizitzaren alokairuari aurre egiteko gazteendako diru-laguntzak lotu ditu Udalak. Hori arautuko daben oinarriak onartu barri ditue, aho batez, eta 60.000 euroko diru-atala gorde dabe. Zabaldu dabe eskariak egiteko epea, azaroaren 15a arte.

Gazteei euren emantzipazino prozesuan laguntzea eta gazteen artean alokairuaren aukera sustatzea dira helburu, Iñaki Totorikaguena alkatearen berbatan; beste laguntza batzuekin batera garriak direla begoratu dau. Hileko alokairuaren %50 arteko laguntza

emongo dabe; gehienez, 250 eurokoa, beraz, urtean 3.000 euro.

18-35 urte artekoentzat

Alokatutako etxea lurretan egon behar da eta, “espekulazinoa ekiditeko”, gehienez 750 euroko alokairua onartuko dabe. Gitxienez bost urtean herrian erroldatutako 18-35 urte arteko gazteentzat da laguntza: ezin dabe etxe baten jabe izan eta, gehienez, urtean 28.000 euroko diru-sarrerara garbia eduki leikie. “Adin eta diru-sarrera txikienekoek daukie aukera gehien”, dino alkateak. Bizikidetzak unitateak be izango dau eragina.

Alkatearen berbatan, “beti dago babestutako etxebizitzak galdetzen dauenik, baina ez dakigu zenbateko eskaria egon leiteken”. Urteetan mantentzea da helburua: “Proba da aurtengoa, mugimendu aukerarik dagoen ikusteko, eta beharrezkoa bada diru-atala egokitzeke”. Informazinoa helarazoko dabe etxez etxe. ■ A.B.

Etxebizitzaren hileko alokairuaren %50 arteko laguntzak emongo ditue; gehienez, 250 euro

Euriak ez zituen dantzariak kikildu Urrienean

Euriak ez zituen kikildu ‘Urriena’ lurretako dantzarien jaiak batutako hainbat belaunalditako dantzariak —dena, 17 talde—, eta hitzorduari hutsik egin barik eskaini eben saioa Aita San Migel plazan. Ohiko omenaldia jaso eben 60 urtetik gorako 70 dantzari inguruk, eta eguna amaitzeko bazkari giroan elkartu ziren Goiurian.



Ana Domiguez



Gazteen emantzipazinoan lagundu gura dau Udalak. A.B.

DURANGO

Mehatxu “faxistak” salatu ditue Aralarrek eta Iratzarrik

Iratzarriren Durangaldeko ordezkari den Markel Ganboak gutun bi jaso ditu

Aralarreko eta Iratzarri gazte erakundeko militanteek euren kide Markel Ganboak asteburuan jasotako “mehatxuak” salatu ditue. Etxeko postontzian eta ateko oinazatarrean itzitako gutun bi jaso ditu Ganboak ‘Comunista de mierda’ eta ‘Maricón de mierda’ lako esaldiak, eta bere izena zein Aralar eta Iratzarri diana baten barruan sartuta, jakin eragin dabenez.

EHGAMEko kide be baden Ganboak militantzia eta borroka “beldurragaitik” itzi daian gura dabe gutunok helarazo ditueen ezezagunek, Aralar eta Iratzarriko militanteek salatu dabenez, “era koldar eta zigor bakoan”.

‘Eraso faxisten aurrean ez gara isiltzen’ lelopean elkarretaratzea deitu dabe bihar, 12:00etan, Andra Marian

“Oinarrizko eskubide zibil eta politikoak urratzen ditueen mehatxu faxista eta homofoboak” salatu ditue

Ertzaintzan salaketa aurkeztu dabe, “autoretzaz zalantzak” edukit arren, Espainiako Falangeak sinatutako gutunongaitik.

Ganboari eta familiari elkartasuna agertu deutsee, eta bere lana “babestu” eta horretarako “askatasuna” exijitu dabe, “bere oinarrizko eskubide zibil eta politikoak urratzen ditueen mehatxu faxista eta homofoboak” salatuz. Beldur eta mehatxuen gainetik elkarregaz lanean jarraituko ei dabe. Bihar, Andra Marian, 12:00etan, egingo daben elkarretaratzean parte hartzeko deizabala egin dabe, *Eraso faxisten aurrean ez gara isiltzen* lelopean. ■ A.B.

“Agurrik gabeak” gogora ekarriko dituen gomuta ekitaldia

‘Agurrik gabeak’ borrokalari antifaxistei II. omenaldia antolatu dau Durango 1936 elkarteak, urriaren 23an. Olmako tximinia-aren alboan egindako aurreko eta lore-eskaintzagaz hasiko da ekitaldia, 20:00etan. Ondoren, Plateruena kafe antzokian egingo dabe aurkezpena.

‘Durango, oroimenaren gogoan’ dokumentala aurkeztuko dabe, 20:30ean Plateruenean, eta ondoren Fermin Balentziaren kantaldia izango dabe. 1936ko estatu kolpe faxistari aurre eginez eta Errepublikagaz eta Euskadiko Gobernuagaz bat eginez, bizitza askatasunaren, justiziaren eta Euskal Herriaren nazio-eskubideen alde emon eben durangar eta iurretarrei egin gura deutse gorazarre Durango 1936 elkarteak. ■ A.B.

Borrokalari antifaxistei gorazarrea egingo deutse Durango 1936 elkarteak, urriaren 23an

GARAI

Udaletxean mantenduko dabe KZgunea, kultur etxea egin arte

Garaiko KZguneak Udaletxean izango dau lekua, kultur etxe barria egokitu bitartean. Udaletxea zabalik dagoenean bakarrik erabili ahal izango da ordenagailuen gela hori.

“Zerbitzua erabiltzeko aukera gehiago izateko” mugituko dabe kultur etxera

Martitzen eta eguenetan goizez, 09:00etatik 15:00etara, eta eguaztenetan arratsalde, 15:00etatik 19:00etara, egongo da zabalik KZgunea.

Kokaleku barria

Otea-Loran elkartearen gaineko lokaletara lekualdatuko dabe KZgunea. Oraindino, baina, Udalak konpontze eta egokitze lanetan murgilduta dabil. Udal ordezkarienesanetan, “herritarrek zerbitzua erabiltzeko aukera gehiago izateko” mugituko dabe kultur etxera.

KZguneaz aparte, ludoteka be izango da eraikinean. ■ M.O.

katerin ardoak
iñaki uribe
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan

Hemen agertu gura badozu
deitu!
94 621 79 02

DURANGALDEA

Eskualdeko gazte mugimenduaren lehenengo topaketak egingo ditue

Abadiñon batuko dira eskualdeko gazteak, urriaren 30etik azaroaren 1era

Durangeldeko Gazte Mugimenduaren Topaketak antolatu ditue, datorren urriaren 30ean hasi eta azaroaren 1a bitartean. Abadiñon elkartuko dira eskualdeko hainbat gazte, eta gai ugariaren inguruan hausnartzeko aukera izango dabe: borroka feminista, aisialdia, komunikazioa, sexualitatea, AHTa, ikasle mugimendua eta sorkuntza jorratuko ditue. Halan azaldu dabe deialdia zabalduz Durangon egingako agerraldian.

Horretarako, berbaldiak, mahai-inguruak, tailerrak eta kontzertua antolatu ditue, besteak beste. Harrera ekitaldia egingo dabe urriaren 30an, 20:00etan, eta 21:00etan luntx-afaria izango dabe.

Ondoren, 22:00etan, Hudaltzainaketa Desperdizio taldeek eskainiko dabe kontzertua.

Eztabaida guneak
Otorduetarako ez eze, eztabaidarako tartea lotu dabe, urriaren 31n 10:00etan eta 18:30ean; era berean, 16:30ean *Zer egin dugu gazteok azken hamarkadetan?* berbaldia lotu dabe. Abadiñoko Gaztetxean gaubela hasiko dabe 22:00etan. Azaroaren 1ean, 10:00etan hartuko dabe berriro eztabaidarako tartea, 13:30ean, ondorioak batzeko. Herri-bazkariagaz agurtuko ditue topaketok, 14:00etan. Dutxatzeko etalo egiteko lekua egokituko dabe, eta asteburuko bonoa 10 euroan jarri dabe eskuragai. ■ A.B.

Borroka feminista, aisialdia, komunikazioa, sexualitatea, AHT, ikasle mugimendua eta sorkuntza landuko ditue

Berbaldiak, mahai-inguruak, tailerrak eta kontzertuak antolatu ditue, besteak beste, egun horretarako



Durangon egin eben agerraldia, Sanfaustoetan ospatutako Gazte Egunean. Durangeldeko gazteak

ATXONDO

Urtea amaitu aurretik aurkeztu gura dabe Hirigintza Plana

Urtebete da Gobernu Taldeak Hirigintza Plana osatzeko prozesua martxan ipini, eta herritar guztien parte hartzerako deitutako lehenengo batzarra deitu ebanetik. Prozesu hori jarraituta, herriaren hirigintza antolamendua zehaztuko dauen egitasmoaren hasierako dokumentua urte hau amaitu aurretik aurkeztuko dabela aurreratu deuskue Udalean.

Besteak beste, industria hartzeko edo etxebizitzak eraikitzea Udalak zer lur eremu bideratuko dauen zehaztuko dau Hirigintza

Planak. Hain zuen be, industria eremuari jagokonez, herriko sarrean eraikitzekotan ziren industriagunea errekatik gertuegi egoiteagaitik geldiarazi egin eban Ura- ren Euskal Agentziak. Hirigintza Plan horretan jasoko da besteak beste, herriko zein leku den industriagunea hartzeko egokiena. ■ I.E.

Hirigintza Planaren hasierako dokumentua osatzen dihardu orain dela urtebetetik Udalak

OTXANDIO

Margo Lehiaketa antolatu dabe domekarako

Domekan XXI. Margo Lehiaketa antolatuko dabe Otxandion. Neurriak, euskarria eta teknika norberak aukeratu ahal izango ditu. Parte-hartzaileek euskarriak zigitatu egin beharko ditue, 09:00etatik 10:00etara, Udaletxean. Ondoren, lanak 15:00ak baino lehenago aurkeztu beharko dira.

Sari banaketa 17:30ean egingo dabe. Irabazleak 700 euro irabaziko ditu, bigarrenak 500 euro eta hirugarrenak 350 euro. Herriko margolari onenak 200 euro jasoko ditu. ■ J.D.

DURANGO

Elhuyarren jardunaldiek 40 bat teknikari batu ditue Landakon



Elhuyar Aholkularitzak eratutako EuskaraGAZ parte hartuz jardunaldiek 40 bat lagun elkartu zituen Landako Elkartegian. Euskara, gazteak eta parte-hartzea: hiru arlo horreetan izandako esperientziak partekatzeak aukera izan eben, eta talde dinamikan batu zitueen azken ondorioak be. Oro har, balorazino oso ona egin eben edukien eta erabilitako metodologiaren inguruan. Bizkaiko eta Gipuzkoako udal teknikariak ziren gehienak, gazte zein euskararen alorrekoak. Halan be, Gazteleku eta Ludoteketako teknikari eta langileak be hurreratu ziren. Berri- zen gazteekin egindako parte-hartze prozesua eta Deban gazte- teen artean euskararen erabilera zelatan eragin daben hartu zitueen berba- gai, besteak beste.

AHTari stop esateko manifestazioa deitu dau AHT Gelditu Elkarlanak

Abiadura Handiko Trenaren (AHT) aurkako manifestazioa deitu dabe, astebururako, Durangon. *AHT Stop* lelopean egin dabe deialdia, zapaturako. Udaletxetik irtengo da manifestazioa, 18:30ean, Durangoko AHT Gelditu Elkarlanak jakin eragin daue- nez. Proiektu "zentsugabe eta inposatu" horregaz ados ez dago- zenen taldea da hori, sindikatu, alderdi, talde eragile, eta, batez be, norbanakoek osatua. Deialdiagaz bat egitera deitu dabe.

Ikasturte barria abiatzeko saioa

Isabel Celaá Jaur- lart- izako Hezkuntza, Uni- bertsitate eta Ikerketa sailburuak parte hartu eban Kristau Eskolaren ikasturte hasiera ekital- dian. Baita Kristau Eskolako zuzendari nagusia den Aitor Bil- bok. Egitasmo horren ildo nagusiak azaltzeko hartu eban berba- berak, San Jose Jesuitak ikastetxean izandako ekitaldian. Joseba Kami- ruaga Kristau Eskolako lehendakariak be parte hartu eban saioan.



BERRIZ

Abentura ardatz, berbaldi eta ikus- entzunezko sorta antolatu dabe

Abentura bizipenak oinarri dituen berbaldi eta ikus- entzunez- ko sorta antolatu dau, beste behin, Udalak. *El conquistador del fin del mundo* telebista saio- ko gorabeherekin hasiko ditue ber- baldiok, zapatu honetan, urriaren 17an. Horretarako Julian Jan- tzi aurkezlea, Jose Luis Korta taldeetako baten kapitaina eta Eider Martinez parte- hartzaileetarikoko bat gonbidatu ditue. Kul- tur Etxean elkartuko dira, 19:30ean.

Txus Ruiz de Erentxun durangar abenturazalea egongo da urriaren 25ean eta hilaren 31n zortzi urte zituela Honda- rribitik irten eta 25 urte- gaz bueltatu zen Zigor Gonzalez; Afri- ka, Asia eta Ameriketako bizi izan da. Miren Amuriza berri- zta- rrak, barriz, 2007an Nikaraguan bizitakoa izango dau berba- gai azaroaren 6an.

DURANGOKO JAIAK 09



BERBAZ >

“Herriko emakumeon preminei irtenbidea topatu gura deutsegu”

Anderebide emakume elkarte sortu barri daben arren, argi daukie taldearen helburuak zeintzuk diren



Ana Urkidi •

- Anderebideko presidentea
- 44 urte

Iurretako emakume taldeak gogotsu ekin deustso bideari. Anderebide elkarteak gizon eta emakumeen berdintasuna bultzatu gura dau. Herriko emakumeen preminak aztertu eta irtenbideak bilatzeko hainbat proposamen daukie.

Zelan sortu da taldea?

Jabekuntza ikastaroa egin genduen herrian. Parte hartu genduen emakumeok pentsatu genduen emakume talderik ez zegoela, eta geuk egiteko aukera geunkala.

Zer helburu daukaz elkarte barriak?

Emakume eta gizonen arteko bardintasuna lortzea dogu helburu. Geure ahotsa eta ikuspuntua entzun daiten lan egingo dogu.

Bardintasunera heltzeko bide luzea gelditzen da?

Emakumeon preminei irtenbidea topatu gura deutsegu. Bidearen hasieran baino ez gagoz. Geuri be kostatu egiten jaku. Hizkuntza aldetik be berdintasun erizpiderik ez dauka-

gu. Bizitzan mutil edo neska baten espektatibak be ez dira bardinak. Pentsamolde horreek aldatzea ez da erraza.

Zenbat bazkide batu zarie?

Hasikeran hamabi lagun batu ginen. Hilabete bi dira martxan jarri dogula, eta 80 emakumetik gora gara. Emakume gehiagok parte hartu daien deialdia egin gura dogu.

“Harrera oso ona izan dogu herrian. Udaleko Ongizate Sailak eta herriko elkarteek laguntasun handia emon deuskue elkarte sortu jarri daigun”

Zer harrera izan dozue herrian?

Harrera ona izan dogu. Bai Ongizate Sailatik baita herriko elkarteengandik laguntza handia jaso dogu; Mikel Deuna elkartearengandik, esate baterako.

Zer premina nabaritzen dozue herrian?

Hainbat ekitaldi antolatu gura doguzen arren, aldarrikapenerako tartea be hartu gura

dogu. Umeendako leku batzuk beste modu batean jarriko geunkez. Emakume moduan toki batzuk arriskutsu ikusten doguz. Pasabide batzuetan argi falta dago, espaloiren bat apurtuta dago. Hiri debekatuaren mapa egitea bultzatu gura dogu. Leku batzuk identifikatu daukaguz. Hirigunean eta auzoetan egin beharreko lana da.

Beste ekimen batzuk be antolatuko dozuez.

Elkartearen jarduna eztabaidatzeko bazkideok batzar nagusia egingo dogu urriaren 23an, 19:30ean. Urrian *Estresa eta antsietatearen kontrola* ikastaroa, eta azaroan autoestimua-ri buruzko beste ikastaro bat antolatuko doguz. Ikastaro bi horreek astean behin emongo ditue eta bakotxa 20 ordukoa izango da.

Beste emakume elkarteren bategaz hartu-emonik izan dozue?

Sortu aurretik ez, baina Andragunera hurbildu gara, eta Durangoko beste emakume talde batzuekin be hartu-emo-na izan dogu.

Geroago eta emakume elkarte gehiago zarie.

Esan deuskuenez, emakume talde guztiak elkartzeko asmoa dago, baina oraindino ezin izan dogu batzarretara joan. Badagoz denok landu gura doguzen gaiak.

Zer gai dira horreek?

Herrian geroago eta emakume etorkin gehiago dago. Emakume horreek gure elkarteetara zelan hurreratu pentsatu behar dogu. Sortu dogun elkarte denona izatea gura geunke.

“Emakume etorkinek elkartearen parte hartzea gura geunke”

“Durangaldeko emakume talde guztiak elkartzeko asmoa daukagu”

Badaukaguz proposamen batzuk emakume horreek taldeko kide izan daitezen.

Adin guztietako bazkideak zarie.

Badagoz 20 urte ingurukoak, baita 70ekoak be. Denon intereseok diren ekitaldiak antolatu gura doguz; batzuetan gazteagoendako, beste batzuetan nagusiagoendako.

Non dago taldearen egoitza?

Eguenetan 16:00etatik 18:30era Goiuria kultur etxean egoten gara. Gura daben guztiek bertara etorri leikie.

Elkartearen logoa berezia da.

‘Kurbixeta’ deitzen da. Diseinatzaileei esan geuntsen logoan bide bat irudikatzeke. Aukereto bat horixe izan zen. Ikur bat dela esan leiteke. Iraganean oinarrituta eta etorkizunera begira. ■Jone Guenetxea

EKONOMIA[>]

> ABADIÑO

Autoak harrapatuta hil da behargin bat Traña-Matienan

Secor enpresarentzat materiala hartzeko errepidea gurutzatzen zebilen

Secor enpresarentzat lan egin eban 44 urteko Lekeitioko langilea hil da, BI-6333 gurutzatzen zihoala auto batek harrapatuta. Jaurlaritzako Herri-zaingo Sailak auto istriputzat jo arren, Euskadiko CCOOko industria federazioak 'in labore' motako lan istripua izan dela salatu dau. Euskal Herrian urte hasieratik 74 langile hil direla lanean gogoratu dau LABek; Durangaldean, sei.

Biek ala biek egin ditue elkarretaratzeak gaur: CCOOk 12:30ean, lantokiaren aurrean; EB-Berdeek ordezkaritza batek be egin dau bat. LABek 12:00etan egin dau. LABek gogoratu dau lanean hildako langileez gainera "milaka"

Euskal Herrian, urte hasieratik, 74 langile hil direla lanean gogoratu dau LABek; Durangaldean, sei

Euskadiko CCOOko industria federazinokoek 'in labore' motako lan istripua izan dela salatu dabe

direla egunero euren lanpostuan istripuren bat daukien edo arriskuan dagozen langileak. "Eran-tzule zuzen" jo ditu enpresariak, administrazioaren laguntzagaz.

'In itinere' eta 'in labore'

'In itinere' eta 'in labore' istripuak ugaritu egin direla dino Euskadiko CCOOk, eta lantokitik kanpo gertatu arren "prebentzio planetan" jaso behar direla, higikortasuna eta tarteko bidaiak "lanaldiaren zati" direlako. Enpresek "prebentzio eta lan segurtasun neurriak ez betetzea" salatu dabe EB-Berdeek, eta lege urratzeen aurrean administrazioari "isun gogorak" eskatu deusaz. ■ A.B.

> BERRIZ

Lan istripuak "arazo sozial" deklaratu ditu Berrizko Udalak

Mizar enpresako Oscar Petite langilea gogoratuz, oinarrietara jotzea "ezinbestekoa" den "arazo soziala" deritze Udalak lan istripuei, eta atzean "enpresariaren etekin grina" eta "Euskal Herrian lan harremanetarako esparrua eraikitzeko arazoa" dagozela.

Petiteren familia eta lagunei elkartasuna agertu eta istripua argitzeko "bitartekoak" jartzeko konpromisoa hartu dabe, aho batez —zuzendaritzagaz batzarra eskatuko dabe—, eta bidejudiziala zabalduz gero herriakusazino lez aurkeztuko dira.

Aurrerantzean, istripu bat gertatzen denero, egunean bertan urgentziazko bilkura deitu eta sindikatu eta eragileekin mobilizazioa eratuko dabe. ■ A.B.

■ kolaborazinoa



Jose Petite
CCOO sindikatua

Asanblada

Euskal industriak Enplegu Erregulazio Espediente (EEE) mordo bat jasan zuen urte hasieran; urtarila eta urria bitartean, hain zuzen ere. Oporretako bueltan, krisia okerrera omen doanez, patronalak bigarren bultzada bat eman nahi dio lanpostuen murrizketari. Eta badirudi oraingo honetan espedienteak ez direla soilik behin-behinekoak izango, baizik eta enplegu finkoak ere mehatxupean egon litezkeela. Euskadiko CCOOko Industria Federazioak asanblada kanpaina bat abiarazi du, krisiak Euskadiko eskualde bakoitzean ekarri dituen ondorioak aztertzeko eta espedienteen aurreko estrategiari buruz hausnarketa egiteko.

Durangaldeko asanblada joan zen ostegunean egin zen, 300 bat ordezkariaren parte-hartzearekin. Bertan argi utzi zen espedienteen aurrean langileok ezin dugula atzerapausorik onartu espedienteen baldintza ekonomiko eta sozialetan. CCOOren helburua bikoitza da: alde batetik, enplegua kosta ahala kosta mantentzea, eta horretarako kaleratzeei tinko egin behar diegu aurre, bai kalean bai negoziatzioa mahaian ere; eta bestetik, gure industriaren defentsan gogor aritu behar dugu. Espedienteen plan industrialetan inbertsioak aldarrikatuko ditugu, hala produkzio baliabideetan, etengabeko prestakuntzan zein Ikerkuntza, Garapen eta Berrikuntzan (i+D+i delakoan). Hau guztia posible egiteko, sindikatuak Eusko Jaur-laritzari ohartarazi dio espedienteen edukia zehatz-mehatz aztertu behar duela, eta aurreko erregulazioetan baino baldintza okerragorik ezin duela onartu.

Asanbladaren ondoren, CCOOko ordezkariak elkartzatze zaratatsua burutu zuten Abadiñoko Secor enpresaren aurrean. Bigarren aldiz azken hilabeteen, lantoki horretako lagun bat hil da lan istripuan, honako hau auto batek harrapatuta, gertuko enpresa batean enkargu bat egitera zihoanean. Bertan bildu ziren sindikatuko ordezkariak enpleguaren eta gure industriaren aldeko leloak abestu eta istripuen kontrako neurriak exijitzeko.



Protestak egin ditue Murueta industriagunean. Iban Gorriti

> DURANGO

Azterlanek %15 igon dau fakturazinoa, 7,7 milioira ailegatuz

Azterlan metalurgia ikerketa zentroak %15 igon dau fakturazinoa, 7,7 milioi eurora ailegatuz. Halan jakin eragin dabe enpresako arduradunek, ohar baten bitartez. Igaz 800.000 euro arteko inbertsinoa egin eban lantokia Alienaldi industriagunean daukan enpresak.

Hainbat sektoreko enprekin kontratatutako egitasmoetan dauka oinarri fakturazinoaren gorakada horrek. Galdaketa, automozino zein sektore eolikoko enprekin, kasurako: "Euren beharrak identifikatzera eta lehiakortasuna hobetzea laguntzera zein maila teknologikoa igotzera bideratutako egitasmoak izan dira", argitu dabenez. Pedro Intxausti zuzenda-


ri orokorraren berbatan, "azkene-ko urtean gure bezero askoren aliatu estrategiko izatearen aldeko apostua mantendu dogu, bide luzeko hartu-emonen mesedetan".

Azterlan 30 urtetik gorako esperientziadun ikerketa zentroa da. Automozino eta energia barriztagarrien sektorean dago espezializatuta; doktore, injineru eta tekniko artean 80 bat adituk dihardue bertan. ■ A.B.

Igaz 800.000 eurora arteko inbertsinoa egin eban Azterlan metalurgia ikerketa zentroak

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz



**MOMOTXO
TABERNA**

Plateruen plaza, 12
Tel.: 94 681 10 06 DURANGO



KULTURA[>]

DANTZA > EMANALDIA

Gorputzaren mugimendua adierazpide: 'De Dos'

Otra Danza Alacanteko taldearen *De Dos* ikuskizuna izango da urriaren 23an Berrizko Kultur Etxean ikusgai. Ikusleek dantzari leiho eta begirada berrietatik so egin diezaioten helburu duen Elxeko konpainia da Otra Danza.

Berrizera *De Dos* izeneko ikuskizuna dakarkigute; euren azkeneko ekoizpenen zatiak hartuz osatu duten ikuskizuna. Ordubeteko iraupena duen dantza emanaldian, *Oyeme con tus manos* eta *Tan lejos tan cerca*

ikuskizunetako zatiak erakutsiko dituzte Asun Noales eta Kike Guerrero dantzariak urriaren 23an, 22:00etatik aurrera, Berrizko kultur etxeko oholtzan.

Dantza beste adierazpide batzuekin nahastea da konpainiak sortzen dituen ikuskizunak lotzen dituen adibide nagusia, eta horren erakusgarri da *De Dos* ere. Sortzailearen lanerako lanabes oinarritzkoentzat hartzen dute dantzari hauek euren gorputza, eta berau dute komunikazioaren oinarri. ■ I.E.



12 Sermond's taldearen estreinaldia

Durangoko txosnagunean eskaini zuten joan zen asteburuan Sermond's taldekoek kontzertua. Urriaren 21ean kaleratuko duten 'Azken bala' diskoan bildutako kantez aritu zaizkigu.



13

Oihane Lejarretaren 'Kapzuloa'

Lejarreta gazteak zuzendu duen Kapzuloa izeneko performance lanaren lau emanaldi daude gaur Durangoko San Agustinen. Sortzaileagaz egon gara.

MUSIKA > AURKEZPENA

'Azken bala': Sermond's taldearen hamar kanta freskoren bilduma

Urriaren 21ean kaleratuko ditu 'Azken bala' diskoaren 500 kopiak Durangaldeko bost musikarik osatzen duten Sermond's taldeak. Punk-rock "klasiko eta freskoa" topatuko dugu disko horretan



Durangaldeko bost lagunek berreskuratu zuten, 2008an, orain urte batzuk zenbait kontzertu eskaini zituen Sermond's taldea. Lehengo taldeko kide bi, taldea desegin ondoren ere kantak sortzeko batzen hasi ziren, eta Koldoren (baxua) eta Iñigoren (gitarra) ingurura beste hiru musikari batu dira: Tximis baterian, Gorka "Vicious" gitarran eta Gotzan kantari.

Durangoko jaietan, hiru hilabetez jo barik egon ondoren eskaini dute kontzertua, aurretik besteak beste, Perros de Diablo, Midnight Murders, Arto Bixerra, Tuesday Evenings, Dirties eta Kuntur taldeetan aritu izan diren musikariek. "Azkenean jende bera gara izen desberdinagaz", diote taldekideek bromatan. Baina musika egiten hamarkada bat baino gehiago daramate eta Durangaldean musika esparruan mugitzen den jende gehiena dute ezagun.

Joan den asteburuan, Durangoko jaietan izan dute kontzertua

Besteak beste, Dirties eta Arto Bixerra-n aritu izan dira 5 musikariok

Durangoko kontzertuagaz, euren buruekin oso zorrotzak direlako eta eszenatokiak bertigo handiegia eragin zielako, ez daude lar konforme. Hala ere, kontzertuak,

zuzenekoak dira Sermond's taldearen indarririk handiena: kontzertuetan bai oholtza gainean bai entzuleen artean sortzen dakiten energia. 2008an bueltatu zirenetik, hainbat lekutan erakutsi dute hori, eta urte hau amaitu aurretik grabatu duten diskoa aurkezteko hainbat zuzeneko egingo dituzte: azaroaren 10ean Gasteizko Parral tabernan, 12an Algortako Gaztetxean eta abenduaren 26an Eloorrioko Gaztetxean arituko dira.

Udako hiru hilabeteetan, kontzerturik eman barik, diskoaren edukia, promozioa (Facebook eta Myspace gunek atontzen) eta diseinua lantzen jardun dute bostek burubelarri. Grabazioa Durangoko Iditu Records-en egin dute, eta nahasketak Eloorrioko Karlos Gomezen estudioan.

Abiada bizian

Hilabete gutxitan sortutako kanta asko eskuartean zutuztela eta diskoan gordetzea merezi zutela ikusita, hamar abestiko diskoa grabatu dute. Izan ere, diskoa eduki aurretik hasia baitzen Sermond's kanta horiek kontzertuetan jotzen, eta eszenatokitatik taldearen dinamismoa transmititzen.

Urte eta erdian, entseguetan oso konstanteak direlako, besteak beste "elizaraz joatea moduan, gu lokalera etortzen gara entsaiatzera", oso arin joan dela guztia kontatu digute. Kantak grabatzeko momentua zela eta indartsu zeudela eta ekin diote autoekoizpenari. Asteburu batean grabatu zuten dena, "ahalik eta freskoen".

Urriak 21ean jasoko dituzte "rock and roll abaniko nahiko zabala: punk rock doinuak" jasotzen dituzten 500 kopiak. "Punk rock indartsu eta klasikoa, eta

Eskandinaviako musikaren ukuitua ere baduena", azaldu digute. Kantekin euren burua asetzeari dutela helburu nagusi azpimarratzen dute, eta diskoak kantak oso gustuko dituztelako pozik daude.

Azken bala diskoak kanta bakoitza besteetatik desberdindatzen du, diotenez, "bat erritmo bizkorrekoa izan leiteke... eta..." hasten du taldekide batek esaldia, eta kideak barrez bukatu: "...eta beste bat bizkorragoa oraindik!".

Freskotasuna eta diseinua asko landu omen dituzte *Azken balarako*. Konposatzerakoan, kanten "eskeletoa" Iñigok eramaten duela lokalera eta melodiaren gainean Gotzanez hitzak sortzeko abildade berezia duela azaldu digute. Melodiaren gainean esaldia eta esaldiaren arabera abestiaren istorioa asmatzen du.

Durangaldeko taberna eta Gaztetxeetan eta kontzertuetan zabalduko dituzte diskoak. ■ I.E.

PINTURA > LEHIAKETA

Parte-hartze txikiagoa Durango Hirian aurten

San Fausto jaien atariko Durango Hiria margo lehiaketako saridunen izenak jakinarazi dituzte

Irailera arteko epea izan dute Durango Hiria margo lehiaketako bederatzigarren edizioan parte hartzeko euren margolanak bidali dituzten artistek. Iazkoagaz alderatuta, gutxiago izan dira aurten lehiaketarako jaso dituzten lanak: guztira, 29 izan dira aurkeztutako lanak.

Leioako Jose Ramos margo-lariak lehiaketara bidalitako lana izan da irabazle hautatu dutena: *Motor diesel en Axpe* izeneko. Lehenengo sari moduan, 600 euro eroan zituen Durangotik leioarri, eta bigarren eta hirugarren postuagatik 450 eta 300 jaso zituzten, hurrenez hurren, *Llueve en el puerto* aurkeztu zuen Jose Abel Sánchez eta *Lucas y sombras urbanas* lana egin zuen Javier Ordoñez bilbotarrek.

Durango Hiria margo lehiaketaren IX. edizioan, beraz, sari nagusiak Durangotik kanpoko margolariak eraman dituzte. Eta parte-hartzea orokorrean gutxitu egin bada ere, Durangaldeko artistak aurten gehiago izan direla edizio honetan adierazi dute Durangaldeko Artisten Elkarte-ko antolatzaileek. Durangaldeko Artisten Elkarte-ko eta herriko egileen lanik onenari eskainitako saria Azucena Fernández muskiztarrek jaso du. ■ I.E.

Leioara lehenengoa eta Bilbora bigarren zein hirugarren sariak

GEURE DURANGALDEA



Angel Zelaieta Idazlea

Gara

Ezagugarria da Hupahulparen *Magos, maúros, mahoneros o amasikes* liburua, Santa Cruz de Tenerifén 1987an argitaratua. Amasik berbetan –dinosku Hupahulpak– gara hitzak "pequeña montaña que emerge en un llano" esan gura ei dau.

Kanariar uharteetan, zenbait toki izen *gara* batez hasten dira: Garachico (Kanaria Handian eta Tenerifén), Garafía (K. Handian), Bahía de Garañona (Tenerifén), Garajonay (Gomeran)...

Tenerifén bizi diren Julio Laespada eta Arnaldo Astarloa bizkaitarrek baietz, horrelaxe dela izan be, dinoste, eta gehitu be bai Arrigorriagar azken honek: "*Te envío adjunta la ilustración de los balleneros bermeamos junto al puerto de Garatxiko de mi novela 'La Hija del Amo' y como puedes observar aparece una elevación junto a la costa. Esta elevación no es aleatoria sino que existe en el citado lugar.*"

Kanariar uharteetako zenbait toki izen 'gara' batez hasten dira: Garachico, Garafía, Garajonay

Euskaraz be *gara* honek "Elevación, altura" esan gura daua dino Mitxelena. Zenbait toki izenen hasieran nahiz amaieran agertzen da: Garai, Garaikoetxea, Garate, Garaialde, Garaizar, Garaizbal, Garai-korta, Garaigordobil, Amezkara, Bidegarai, Elezgarai, Ezkara, Landagarai, ...

(Ez dira, baina, multzo horretan sartu behar Bergara eta Garaukorta...).

Josu Naberanek be (*Hitzen koba*, 2005) "Gorunea, burua" esan nahi dauela *gara* horrek dinosku.

Ybarrak dakarrenez (*Escudos de Vizcaya*), bada Durangon Francisco Garay-Gordobil en etxea, Mauricio Zabala kalean, armarran jarraiko hauxe dakarrena: "*Garayan altuan nago. Erria gordeago*". Juan Carlos Guerrak (*Estudios de heráldica vasca*) itzulpen hau emoten deusku: "*En lo alto estoy y la patria más guardada*". Garbi agertzen da *gara* = *altu bardin-tasuna*. Esaldi osoak zera esan gura ei dau, Guerraren ustez: "*Expresaron los banderizos su (...) protección a la Patria*".

ANTZERKIA > ELKARRIZKETA

*Zure herriko, Elorrioko Kli-
kaire jaialdian aurkeztu zen-
duen ikuskizuna?*

Azkenean Klikairen aurkeztu ahalizateko berandu ibiliginen, eta irailaren 15ean Ateneoan egin genduen entsegu orokor moduko emanaldia. Estreinaldi moduan, baina, gaurko Durangokoa antolatu dogu.

Zelan hartu eban Elorrioko ikuslegoak Ateneoko 'Kapzuloa'-ren emanaldia?

Berrogei bat lagun etorri ziren ikustera, eta egia esan oso gustura amaitu genduen. Hogeiko talde bitan banatu genduzen, eta oso harrigarria egin jakela esan euskuen ikusleek.

Zer komentatu eben, bada?

Harritu egin zituela esan eusten askok: kuxkuxean, zerbait gertatuko den zain egon eta azkenean ezer gertatzen ez deneko sentsazioagaz geratu zirela. Aktorea komunean edo haginak garbitzen ikusteak eta berak zu begira zagozela ez ohartzeak morboa eragiten dauela esaten eusten. Zirrara hori eragin eutsela.

“Kuxkuxean,
zerbait gertatuko
den zain egoten da
ikuslegoa”

Lehenengo aldia da zure lan bat hemen aurkeztzen dozuna?

Lehenago, hemen ez, baina Madrileko Lavapieseko Artisten jardunaldian arrakasta izan eban performance bat egin genduen: jaiotzari buruzko *Mater* izeneko lana. Zentzumenen antzerkiaren instalazio bat zen. Jenteari tripa barruan zegoela eta jaiotzera zihoala sentiarazten geuntsan.

“Ikusleak behatxulo
batetik ikusten dau
kaxa barruan
gertatzen dena”

“Lehenengo ideia
Madrilen sortu jatan,
baina hemen eroan
dot aurrera”

“Hirian jentez inguratuta baina bakarrik sentitzeari buruz dihardut”

Oihane Lejarreta elorriarrak Durangaldean aurkeztu dauen lehen lana da **Kapzuloa**. Gaur Durangoko San Agustingo sarreran lau emanaldi dituzte; 19:00etan, 20:00etan, 22:00etan eta 23:00etan. Irati Iturrate eta Javier Guzman dira antzezleak. Ikuskizuneko musika Ander Garaizabalek sortu dau, eta Peru Magdalenak idatzi dau testua. Antzerkia sentitu eta bizitzeko beste era bat eskaintzen dauen esperientzia bisuala da **Kapzuloa**



I. Esteban

Eta 'Kapzuloa' zer da?

Itsasoko enbalajeko kaxa bat da Kapzuloa; 30 behatxulo eta aurikular daukaz. Ikusleak bertatik begiratuta ikusten dau barruan gertatzen dena, eta aurikularretatik entzuten dau off-eko ahotsak dinona. Barruan etxe oso bat dauka kaxak.

Oso ikuskizun berritzailea da proposatzen dozuna.

Ezberdina da, bai. Hamar hamabi minutuko emanaldia da, hirietan bizi izan nazenean izan dodan sentsazio batetik sortutakoa. Badirudi etxeko logela dela zeure leku bakarra. Jentez inguratuta zagoz, baina bakarrik sentitzen zara. Hortik sortu zen Kapzuloa: ezertan sinesten ez daben gaurko gazteen noraez setipenetik.

Madrilen sortu baina Durangon eskainiko dozue.

Hori da, bai: lehenengo ideia Madrilen sortu jatan, baina gero hona bueltatu eta hemen eroan dot ideia aurrera. Behin hona bueltatuta, komentatu neutsen

lagunei nire ideia hori, eta garatzen hasi ginen. Formatua pentsatu eta izugarri gustatu jata-nez, hasi nintzen lagunei eta programatzaileei zer iruditzen jaken galdetzen.

Esango zeunke 'Kapzuloa' ikusleentzako harrigarria izan leitekeen ikuskizuna dela?

Antzerkia egiteko eta ikusteko be modu desberdina da: publikoari ezinegon hori transmititzea zen gura nebana. Ikuslea behatxuloetatik, kuxkuxean moduan, eta postura arraroetan ibiltzera bultzatuz barruratzen dogu sentsazio horretan. Esango neuke gogo barik bazagoz ez dozula antzezlanagoko izango, ikuslearen partetik ahalegin bat eskatzen dau. Horregaitik irauten dau 12 minutu.

Noiz hasi zinen halako ideiak izan eta garatzen?

Beti izan dot gustuko antzerkia, eta lehenago diseinua ikasi neban arren, beti idatzi izan ditut nire ideiak: gero eszenografia eta zuzendaritza artisti-

“Lehenengo aldia
izan da proiektu bat
garatzeko oinarria
topatu dodana”

“Hamar minutuko
emanaldia da, hiriei
buruzko gogoeta
batetik sortua”

“Zuzena izan behar
dau antzerkiak,
eta sentsazioak
transmititu”

koa ikasi dot. Orain arte, baina, beti hemendik hara ibili izan nazenez, ez dot nire proiektuak garatzeko oinarrik izan. Lehenengo aldia da geratu, eta bati heldu egiten deusadana.

Antzerki konbentzionalagoa ez dozue lantzen?

Gustuko dot, baina egia esan, oso gatz egiten jataz berbak. Gorputzen mugimenduagaz edo musikagaz transmititzea gurago dot. Berbekin transmititzeko beste bide batzuk bada-gozela uste dot: zinema edo liburuak, esaterako. Antzerkia beste zeezer izan behar da, nire ustez. Antzerkiak beste bide bat topatu behar dau ailegatzeko. Zuzena izan behar dau antzerkiak, eta transmititu egin behar ditu sentsazioak. Berbekin baino hobeto adierazten naz gorputzagaz, edo aurpegiagaz.

Gehitzeko ezer?

Eskerrak emon gura deusadaz lagundu nabenei: eurei eskerrak egin dau proiektuak aurrera gauzatu arte. ■ I.E.

PINTURA > ERAKUSKETA

Isusi Rementeriarri Durangok zor zion omenaldia Museoan

Durangoko Arte eta Historia Museoan urrian zehar ikusgai dagoen erakusketa da Ramon Isusi Rementeriarren bizitzako lanak biltzen dituen

Askotariko teknikak baliatuta, batez ere hiru hamarkadatan zehar Ramon Isusi Rementeria pintore durangarrak egindako margo lanen erakusketa dago Durangoko Museoan ikusgai. Urrian zehar bisitatu daiteke bilduma.

Bere jaioterriko lekuen eta pertsonen irudiak —erretatuak zein gizarteko gertakariak— bere koadroetan gordeta utzi zituen 1897an jaiotako Isusi Rementeriak. Durangoko Arte eta Historia Museoko bigarren solairuan bildu dituzte 1964an zendu zen autorearen lanak, urteetan bere herriak zor zion omenaldia eginez.

Aita arabarra eta ama arratiarra zituen 1897an Durangoko erdigunean (Artekaleko 22. zenbakian) jaiotako pintoreak. Gizon bohemioa zen ospea zuen Isusi Rementeriak: aldi luzeak ematen omen zituen Bilboko Torrontegi

1940ko eta 1960ko hamarkadetako irudiak koadroetan jasoak

Isusi Rementeriak egindako erretatuak ere erakusketan

Hotelean, eta Santa Anako egonaldietan egin omen zituen bere eguzki-erloju ospetsuak.

Arte ikasketak Madrilan egin zituen Isusi Rementeriak, eta Milango katedralaren kupulako obretan lagundu zuen. Nazioartean oso ospetsuak dira, bestalde, Isusi Rementeriarren arkatx-lanak ere. Oso grabatzaile ona izan ei zen, Eibarko Arte eta Ofizio eskolan burututako ikasketei esker.

Gehienetan, enkarguz

Enkarguz burutzen omen zituen Isusi Rementeriak margo asko: ezagunak dira, besteak beste, Bartzelonako kondeari egindako margoa, Alcalá Zamorari eginikoa, edo Hilario Azkarate pilota txapeldunari eginikoa. Durangoko Museoan erakusketan, zerbitzari lanetan dabilen "Belarri" agertzen duen arkatzez margotutako erretaturak ere badago besteak beste.



Erretaturak, naturahilak, eta Durangoko hainbat bazterren margoak egin zituen margolariak: erakusketarako bildu dituzte, esaterako, Tabirako San Pedroko edo Santa Ana agertzen dituztenak. Goiko irudiko *Errembombillos* edo *Apoteosis* lanak ere ikusgai daude.

Bizitzako azken urteetan izan zituen ekonomia arazoek bere lana heraldikara mugatzera behar-

tu ei zuten artista, eta durangar asko dira berak egindako armarrien baten jabe.

Margolari ez ezik, idazle ere bazen Ramon Isusi Rementeria, eta antzerki eta zarzueletan aritu zen, bai aktore legez bai dekoratuetarako margoak eginez. "Oso pertsona herrikoi eta kultua" zena omentzeko modua da, beraz, Museoko erakusketa. ■ I.E.

ARGAZKIGINTZA > ERAKUSKETA



Argazkigintza eta biologia Iturri kultur etxean: 'Basoaren azala'

Jon Benito biologo eta argazkilariak basoan topatutako onddo, liken eta goroldioei egindako argazkiak daude Iturrin azaro hasierara arte ikusgai

Urriaren 14tik aurrera zabalik eta ikusgai dago Elorrioko Iturri kultur etxean 'Basoaren azala' izeneko argazki bilduma. Basoan protagonista nagusiak izaten diren zuhaitzen azpian, sarritan ezkutu izaten diren onddo eta perretxikoen argazkiak dira erakusketan bildutakoak.

Urteko sasoi honetan bereziki, basoei ehundura eta kromatismo berezia ematen dioten izaki horien argazkiak dira, azaroaren 6ra arte, Iturriko hormetan ikusgai daudenak.

Onddoak, likenak eta goroldioak daude argazkietan bilduta, basoetako lurzorua estaltzen duten, eta enbor eta adarrak bizileku dituzten izaki bitxiak.

Jon Benito biologo eta hainbat aldizkaritako argazkilari ere aritzen denak egindako argazkietan bildutako irudiok ikusteko, 09:00etatik 22:00ak arte, Iturri kultur etxea zabalik dagoen tarte dago. Argazkigintza biologo baten ikuspegitik ezagutzeko aukera da 'Basoaren azala' erakusketak eskaintzen diguna. ■ I.E.

Jon Benito biologo eta argazkilariak egindako lana erakusketan

Basoen ehundura eta kolore berezien isla argazki bilduman

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net



URRIAK 23 20:00etan
AGURRIK GABE - Muertos y Olvidados
Borrokalaria antifaxistei II. omenaldia
OROIMEN EKITALDIA. Sarrera doan.



URRIAK 24 19:00etan
DANTZALDI IBILTARIA 2009
AIKO TALDEA
DANTZALDI ERROMERIA. Sarrera doan.



URRIAK 29 20:00etan
KANTUAREN KANTOIA
Gonbidatua: ANARI
BERBALDI MUSIKATUA. Sarrera doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300



KAPZULOA PERFORMANCEA

KOYAME TEATRO

Aktorea: Iratxe Iturrate
Testua: Peru Madalena
Zuzendaritza: Oihane Lejarreta
Musika: Ander Garaizabal

Urriak 16 • Lau pase:
19:00-20:00-22:00-23:00

San Agustin
KULTUR
GUNEa
DURANGOKO UDALA



44. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

Durangaldeko Adiskideen



"Norabide bakarrean eta begietara zuzenean sartzeko apustua egin dut"

Lur Merino bilbotarrak irabazi du aurtengo Durangoko Azokako kartel lehiaketa. Itxuraldaturik ekarri digu proposamen berria. Zuri eta beltzean. Letrak, zenbakiak eta marrak.



Lur Merino, kartelaren egileari elkarrizketa. Txelu Angoitia (Gerediaga Elkartea)

Idea borobilak eta artea. Ordu luzeetako lan nekagarria izan da?

Ez zait horren nekagarria suertatu, egia esan. Hasiera batean argi nuen zer zen bilatzen nuen. Banekien zer estilo eta zer forma erabili. Eta autore ezagun batek dioen moduan, ideia garbi bat duzunean, diseinua egitea ez da horren zaila izaten. Denbora arin joan da, bai.

Diseinatzaile moduan ibilbide luzea duzu atzetik.

Urte batzuk badira diseinu lanetan hasi nintzenetik. 11 urte, gutxi gorabehera. Esperimentzia horrek guztiak izugarri lagundu dit oraingo diseinuan ere. Irizpide gehiago, ideia gehiago eta ikuspegi zabalagoa lortzen da urterik urte. 1997an bukatu nituen Arte Ederretako ikasketak Euskal Herriko Unibertsitatean,

eta geroztik, diseinu grafiko-ko free-lance bezala egiten dut lan Bilbo aldean.

Durangoko Liburu eta Disko Azoka koloretsua eta anitza da. Zer dela-eta zuri-beltzean egindako kartela?

Egia da. Eta kolorerik gabeko kartel sinplea eta borobila proposatzeko asmoa hasieratik izan dut. Batetik, egungo krisialdiaren inguruko zertze-

ladak utzi nahi nituen bertan. Eguneroko krisi-bonbardaketaren ispilu izatea lortu nahi nuen, hain zuzen ere. Bestetik, beltza eta zuriaren arteko konbinazioa erabiliz, mezua norabide bakarrean eta jendearen begietara zuzenean sartzeko apustua egin dut.

Zer jarri nahi izan duzu edonoren eskura?

Kultura bera. Edozein liburu eta edozein disko. Kartelaren behealdean dagoen 44 zenbaki alderantzikatuarekin, eskailera batzuk irudikatzen dira kartel honetan. Eskaile-ra horietan gora igoz gero, disko eta liburuz betetako apala izango duzu parez pare. Guztion eskura dago Azoka. Guztion eskura dago kultura.

Zerk inspiratu zaitu?

Kartelgile austriarrak eduki ditut gogoan. 1920ko hamarkadako artista askoren estiloak erakarri nau azken lanean. Eta tipografia estiloan landu nahi nuen Azokako kartela. Lerro horizontalen erabilera handia egiten zuten orduan ere. Letrak ordenean eta ondo kokaturik antolatze-ko modu erraza da. Vienako kartelgileen lanak oinarri direla esan daiteke.

Bizkaitar batentzat erakusleihu itzela...

Noski baietz. Ni poz-pozik nago! Beste urteren batean ere aurkeztu izan naiz lehiaketa honetara, baina, orain arte, ez dut zorte handirik izan. Aurrekoan aurkeztutako estiloaren kontrako proposa-

men berrituarekin aurkeztu naiz oraingoan. Urte asko dira Azokara etortzen hasi nintzenetik, eta, nola ez, niretzako ohore bat da edizio hau nire kartelarekin abiatzea.

Zer zapore utzi dizu sari honek?

Oso ona. Alde batetik ez nuelako irabazterik espero. Proposamen ausarta zen egin nuena, zalantzarik gabe. Elementu grafikoen ekonomia eta figura edo irudirik ez erabiltzeak arrisku dezente izan ditzake. Hala ere, azken hitza beti du epaimahaiak. Eta kasu honetan, zapore on-ona utzi dit berriak. Deia jaso nuenean saltoka aritu nintzen!

Eta zer usain dakar aurtengo azokak?

Urteroko usain gozoa. Ekimen polita iruditzen zait Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka. Giro ona, nobedadeak... eta ni, behintzat, irrikitan etortzen naiz!

44 segundutan

Azoka egunetan zer duzu nahiago?

- a. Diskoak
- b. Liburuak
- c. Kontzertuak
- d. Parranda giroa

Norekin etorriko zara aurteng?

Bertako lagunekin, segururik. Lagunak bisitatzeke aprobetxatuko dut.

Zein da bertan erosi duzun azken liburua?

Illorentzako 'Amets egiteko liburuak' Kalandrakak argitaratua.

Eta diskoa?

Pirritx eta Porrotx. (Kar kar).

Gerediaga Elkarteen beste ekimenik ezagutzen duzu?

Ardi Txakurren Euskal Herriko Txapelketa, bai.

44

DURANGOKO
EUSKAL LIBURU
ETA DISKO AZOKA
2009ko Abenduaren 4tik 8ra

DURANGOKO AZOKA ZURE ESKURA DAGO =

CATALÁ&EUSKARA

X 30.000 LIBURU BAINO GEHIAGO
+ 4.000 m²

+ (KONTZERTUAK + ERAKUSKETAK + PARTAIDETZA + MUSIKA < JAI GIROA)
X 44 URTE



gerediaga
elkartea



BFA DFB
Bilbo-Figura Alkandila
Diputación Foral de Bizkaia




DURANGO
Urdia - Auzoak



bbk



eitb



EROSKI



LISA
LIBURUAK

Munduari bira, Durangoko gazte baten pedalkadekin



Jose Luis Perez “Kuku” durangarrak Indiarako bidea hartu eban martxoan, bere bizikleta zaharra lagun ebal. Hilabeteetako esfortzu eta bizipenen ondoren, Indiara heldu da orain-tsu. Helburua bete dauen arren, gogorik ez dau falta, eta aurrera segitzeko asmoa agertu dau.

Durangotik Bartzelonara joan zen lehenengo; ondoren Europa zeharkatzen hasi zen

Martxoaren 8an irten zen Durangotik Jose Luis Perez, eta oraindino ez da etxera bueltatu. Bere helburua bete dau: Indiara ailegatu da. Baina, halan be, munduari buelta emoten jarraitu gura dau, abentura gosea ez dau eta asetu. Gogoz eta umorez beterik dago “Kuku”, eta gure galderei be halan erantzun deuse, Indiatik. Abentura da berea, eta abentura da, baita be, beragaz hartu emonetan jartzea. Arazo ugari daukaz hemengoekin komunikatu ahal izateko, baina azkenean lortu dogu beragaz berba egitea. Gaixorik harrapatu dogu, anginekin.

Durangotik Bartzelonara joan zen lehenengo, eta horren ondoren Europazeharkatzen hasi

zen. Espainia, Frantzia, Monaco, Italia, Grezia, Turkia eta Arabiar Emirerri Batuak pasatu zituen Indiara heltzeko.

Pentsatzekoa den legez, hainbeste egunetako esperientzian denetarik gertatu jako. Berak dinonez, “bidaia osoa anekdota bat izan da”.

Atsedena hartzen

Indiako Goa hirian dago une honetan Durangoko gazte abenturazale hau. Bidean, eguraldi txarra, errepideak eta bizibaldintzak izan ditu bere kontra, baina ez da kikildu, ezta gitxiagorik be. Momentu gaxenak Iranen igaro zituen, gatazka piztu baitzen hauteskundearen harira.

Arazoak arazo, beti egin izan dau aurrera. Orain, baina, nekea pilatu jako, eta atsedena hartzea erabaki dau.

Oraingoz, esperientzia ona izan dela esan deusku, kontuan izanda 60 euroko bizikleta bategaz irten ebal eta ez dauela ia arazo mekanikorik eduki.

Laguntza bila

Kukuk dinon moduan, “Txatarrilaren gaineko proiektua” ez da eten. Lehenengo etapa amaituta, beste bati ekiteko intentzinoa dauka. Dena dela, horretarako, laguntza eta babesleak behar ditu. Izan be, diruz urri dabil azken aldian, eta jaso leiken ekarpenaren menpe dago bidaiagaz segitu ala etxera bueltatu. “Etxera bueltatzeko dirurik be ez daukat”, azaldu deusku txantxetan.

Bizikleta dau garraio, etxe eta lagun. Abentura %100. Bidean jente ugari ezagutu dau, eta guztia bere blogean irakurri leiteke: thetxatarrillasprojet.blogspot.com webean. Interesa daukienak beragaz kontaktuan jartzera be animatzen ditu. ■ M. Onaindia

Momentu gaxenak Iranen igaro zituen; gatazka piztu zen hauteskundeetan

Jaso leiken ekarpenaren menpe dago bidaiagaz segituko dauen ala etxera bueltatuko den



Istorio famatuan 80 egunetan emon eutsien buelta munduari, baina Kukuk denpora gehiago beharko dau. Halan emon arren, berea ez da ipuina. Benetan serioa da bere egitasmoa; hori bai, umorez hartzen dau kontua. ANBOTOGaz eginiko elkarrizketan be, ez dau adarra jotzeko aukerarik galdu.

Zer dela eta zabilz munduan zehar bizikletan?

Egia esan, ez dot motibazino berezirik izan. Beti gustatu izan jat abentura mundua, eta aspaldi nenbilen honetan pentsatzen. Une egokia zela iruditu jatan, eta aurrera egin neban.

Hainbat herrialde ezagutzeko aukera izan dozu...

Horreetatik Italia gustatu jat gehien. Herrialde bakoitxak bere ezaugarriak daukaz, baina Italiako polizia motorrekin akrobaziak egiten ikustea... lurrikararen osteko lanetan, Berlusconi be ikusi neban suhiltzailez jantzita! Dena dela, Europa ez jat asko gustatu, dena garesti dagoelako eta gauza asko debekatuta dagozelako.

“Gau bi aireportuan pasatu nituen Iranen, eta jenteak asko lagundu ninduen”

Jente askogaz topo egingo zenduen...

Batez be, Asian ezagutu ditut abenturoak. Diruagaz arazoak daukiezenak, justiziatik ihesean dabilzenak... Halako bidaia bat egiteko zeozer arraroa egon behar da tartean! (barrez).

Eta zelan hartu zaitu bertako jenteak?

Jenteak beso zabalik hartu nau. Iranen, esaterako, hauteskundeetako liskarren gaitik herrialdea itxi eben, eta diru barik geratu nintzen. Gainera, ezin zen inon atera dirurik. Gau bi aireportuan pasatu nituen, eta jenteak asko lagundu ninduen. Azkenean lortu neban irtetzea.

Hain abentura luzean arazo ugari izango zenduen...

Batez be, eguraldiagaz. Etxetik elurragaz irten neban, eta eguraldi txarragaz joan nintzen Italiaraino. Iranen, oster, 50 gradutan ibili nintzen. Gainera, freskatzeko garagardorik barik gengozen, debekatuta dago-eta! (barrez)

Zelan konpondu zara lo egiteko?

Normalean kanpin-dendan egin izan dot. Batzuetan, jenteari pena emon izan deusat, eta euren etxeetan hartu nabe. Baina beno, beti izan naz kalekumea...

Iranen gatazkak bete-betea harrapatu zintuen...

Hauteskundeak ziren, eta han politika erlijioagaz eskutik helduta doala igarri neban. Gainera, emaitzak aldrebestu zitueen eta jenteak kalera irten eban, erantzuna emoten. Militarrek be erantzun eben, hareetako batzuk hiltzen.

Maisu be ibili ei zara...

Behin, akanpalekua bilatzen nenbilela, gaztelera irakasle zen lagun bat zeukien jente bat ezagutu neban. Berak gonbidatu eta han hasi nintzen bidaiaren inguruko klase berezi bat emoten!

“Iranen politika erlijioagaz eskutik helduta doala igarri neban”

Kontaiguzu bidaiaren bizitako anekdota bereziena...

Turkian Umit Acar ezagutu neban, lehen Galatasaray futbol taldean jokatzen ebana. Orain aktore lanetan dabil, baina nik ez neutsan sinesten, telebistan ikusi arte. Julio Iglesiasen bertsino turkiarra zen! (barrez)

Zer deskubritu dozu abentura honetan?

Gizaki guztiak nahiko gaiztoak garela, eta gatazkak ez dituela ez Jaungoikoak ezta inork konponduko, guk ez bada.


Besterik?

Horrelako pertsonaiekin elkartzeko bidaiatu egin behar dela, eta bizikletaz bada, hobeto. Gura dauenak, informatu edo bidaiatzeko, hemen nauka.



ERITZIA[>]

Gutunak



Duatloia komunikabideetan

Urriaren 4an, MugarraTT taldeak antolatuta, 4. Duatloi Herrikoia ospatu zen Durangon.

Lagun batek eman zidan horren berri, eta xehetasun gehiago jasotzeko asmoz, Internetera jo nuen.

Lehen saialdia Durangoko Udalaren webgunean egin nuen. Bertan, ezer ez.

Bigarren saialdia orojakintsua den google bilatzailean egin nuen. Hemen izan nuen MugarraTT taldearen berri. Talde horrek duen webgunean sartu eta igandeko probaren berri ematen zuen afitxa ikusi nuen. Eskerrak!, esan nuen nire baitan, baina... pozak gutxi iraun zuen. Hain zuen bereizmen txikia mini-kartelak ze ezinezkoa zen bertan fitsik irakurtzea.

Agian, egun osoa ordenagailu aurrean ematearen poderioz, Interneten edo zer gauzaren berri izatera ohitua nago, eta arraroa egiten zait hainbat jende mugitzen duen ekimen baten inguruan hain berri gutxi aurkitzea.

Duatloia ospatu eta gero ere, ez dut inongo erreferentziarik aurkitu inon: lasterketa ezberdinen emaitzak, partaide kopurua, saritutako dortsal zenbakiak, bertan ateratako argazkiak, bideoren bat... Nik zer dakit ba!

Eguna ederra izan zen, baita partaidetza aparta ere, baina nire uste apalean, merezi du hain ederki antolatutako ekimen batek beste oihartzun bat komunikabideetan.

Ander Goñi - Abadiño

Durangoko pregoia

Zezenak. Zezenak, izan badirela dakigu. Eta hau jakin badakigu, zer dela eta esaten diogu 'Zezenak dira' Durangoko jaietako sokamuturrari? Antzinako durangarrei galdetu beharko genieke, gure birraitona eta birramonei. Baina, suposatuta, suposatuta dezakegu "zezenak direla" esaten zutela kalean euskara erabiltzen zelako. Semeak aitari jaietako egitarauan zer zegoen itaunduta, aitzak semea-ri "Zezenak dira" erantzuten ziolako. Bestela, "son los toros" edo "hay toros" esango lioke, eta gaur egun daukagun egitarauan ere hori jarriko luke: "Siete y media, hay diana, hay pasacalles y hay toros".

Lagun bati esker dakit, ordea, joan zen mende hasierako jai-egitarauan ere "Zezenak dira" euskaraz idatzita zetoirela. Kalean euskara erabiltzen zelako, ondorioztatu genuen. Egitarau osoko euskarazko hitz bakarrak ziren, ordea. Beste guztia gaztelaniaz zegoen, alegia. Kalean euskaraz, bai, baina 'cosa publikoa' esaten dena gaztelaniaz zegoen. Hasieran praktikotasun faltagatik izango omen zen; gero Francok galarazten omen zuen.

Eskerrak gaur egun euskara debekatzeko ahalguztidunik ez dugula; euskara kalean darabilgula. Eskerrak kalean euskara entzuten dudala, baina baita 'cosa publikoa' delakoan ere; administrazioan, alegia. Eskertzekoa da, apurka-apurka ematen diren urratsak nonbaitera eramaten gaituztela ikustea; kalean egiten den euskarak erabilgarritasuna irabazten duela, hain zuzen ere. Eskertzekoa da dauden debeku apurkak gainditzen dituela ikustea. Eta eskertzekoa da, baita ere, daki-tenek ez dakitenei edo hain ondo ez dakigunok pazientziaz eta begirunez tratatzen gaituztela ikustea. Euskara ikastea lanpostua lortzeko baino zerbait gehiagorako balio duela erakustea; hots, euskara ikasteko grina, euskaldunen historia eta izatea ikastea ere badela erakustea.

Eta horretan ari naiz ni ere. Gereñoak idatzitako hiztegi zahar hau alboan dutila. Euskaldun zaharra ez naizen honek, eta ezta euskaldun berria ere. Behar bada euskaldun berritua naizela esan daitekeen honek (beste lagun bati ikasi nion definizioa). Ni, beste askoren moduan, euskara erabiltzen saiatzen naiz, gurasoek ahal izan duten moduan erakutsi didaten euskara; ahal dudana neurrian eta gogoia dudana neurrian, gustura sentitzen naizen esparruetan. Baita 'cosa publikoan' ere. Baina, ez dut inor engainatuko, ni ere alper samarra naiz eta askotan errazenera jotzen dut; gaztelerara, alegia.

Beraz, zuzentasunaren aldetik, eta ezta militantzia aldetik ere, ez naiz ni inor ezer esateko. Nik ere, arrazoi askogatik, eta tartean gaztelania ere maite dudalako, ez dudalako euskara hainbeste erabiltzen. Justua da, beraz, egia esatea eta dagokidan neurrian neure buruarekin kritikoa izatea. Baina kritikoa izateagatik okertu naitekeela pentsatzen badut ere, ezin naiteke isilik geratu. Zerbait komentatu nahi dut, eta euskaraz, eta hemen idatziko dut: Durangoko txupinazoko pregoia gaztelania hutsean egin zen. Kalean euskara entzun nuen egun hartan, baina pregoia gaztelania hutsean izan zen.

Eta gogoratu behar dugu badugula beste adibiderik joan zen mendean debeku eta oztopo guztien gainetik kalean euskara erabiltzen zela frogatzeko. Durangoko ibaiari Ibaizabal esaten jarraitzen ziotenean, 'Río Ancho' esan beharrean; edo Durangoko saskibaloitaldeari Tabirako jarri ziotenean, 'De Tabira' jarri beharrean. Eta aurtan Tabirakori egokitu zaio txupinazoa botatzeta eta pregoia esatea. Eta nik dakidala egun hartan, oraindik, Durangoko kaleetan euskara erabiltzen zen; eta nik dakidala Tabirakoko jokalariek askok euskaraz egunero egiten dute. Debeku eta oztoporik izan ez bazen ere, 'cosa publikoa' den Udaletxean esandako pregoia gaztelania hutsean egin zen. Eta ez dut ahazten, herriak adeitasuna zor diola talde honi, egin duen ibilbidea bikaina izan delako.

Ez nator inor kritikatzera, ez salatzerara. Kritikek eta salaketek ez dutelako pregoia errepikatze balioko. Baina zilegi deritzot aipamen hau egiteari, dagokio-

nak hausnarketa egin dezan eta hurrengo pregoia 'cosa publiko' -ko balkoitik kale-
ra egiteko beharra sentitu dezan. Finean, kalean euskara eta gaztelania erabiltzen entzuten baditu, euskara eta gaztelania erabiltzea pregoia esaterakoan. Bidea, euskeraren bidea, bereizketarik gabe, inposiziorik gabe, baina baita pazientziaz ere ibili behar delako.

Julen Orbegoza - Durango

Gure euskara maitea eta txupinazoa

Txupinazoa jaiari hasiera ofiziala emateko ekintza nagusia da. Kolore askotako herritarrek biltzen diren une bat. Udaletxearen aurrean, ume eta nagusi, zahar eta gazte, herritar asko emozionatu ohi den ekintza izaten da batzuen-tzat. Nik, ordea, aurtan pena eta amorrua biak batera barru-barrutik sentitu ditut: erdera, erdera eta erdera; euskaraz noiz mintzatuko ziren zain...

Non bizi naiz? Ez al dauka Tabirakok euskaraz mintzatzen den inor, herritarrei hitz batzuk esateko? Eta Udalak, ez dauka ekintza honi buruz ezer esateko? Nola utzi liteke horrelakoak gertatzerik?

Pena eta amorrua biak batera sentitu ditut Durangoko 2009ko jaiak ofizialki hasi direnean.

Durangoko Udala: zaindu mesedez gure euskara, Euskal Astea ospatzea ez da nahikoa. Euskara herriko kontu garrantzitsuetan komunikatzeko tresna ez izatea lotsagarria da.

Iratxe Ugalde - Durango

Rodolfo Ares, Gobierno Vascongado, bere irakurketa sakonak eta gezur sakonagoak

Orain dela hiru bat aste Guden Jaun handiak, Rodolfo Ares, Gobernu Vas-kongatuak "ETari aurre egiten eta hiritarrak bere ekintza kriminaletatik babesten" 225 milioi euro gastatuko dituela esan zuen. Berehala, konparaketa bat eginez, zera bota zuen: "Kopuru horrekin Bizkaiko eskualdean eraikitzea aurrei-kusi duten ospitalea bezalako lau eraiki ahalko lirateke urtero". Egia esan, Ares jn.-k, gaitasun faltagatik ziur aski, ez zuen beste konparaketarik egin. Hori dela-eta, gutun ireki honen bitartez bere hitzen inguruko gogoeta bat egitera gon-bidatzen dut, gehiagotan irigarri gelditu ez dadin eta Euskal Herriko gizartea ez dezan gehiago gutxietsi, ez baitugu inolako gaitasun faltarik ezta informa-zio faltarik ere.

Beraz, sailburuak esan bezala ospitale bakoitza eraikitzeak 56,25 milioi euro balio du.

Haatik, lehenengo, Gobernu Vaskongatuak eta Españolak 2006an sinatu zuten hitzarmena gogoratu behar dugu: bertan, AHTa eraikitzea 4.178 milioi euro kostatuko zela aurrikusten zuten. Hiritar xumeontzat kalkulaezina den zifra erral-doi bat. Zenbat ospitale eraiki ahalko lirateke 4.178 milioi euroekin? 74, Rodol-f Ares. 74 ospitale hiru probintzietan. Utopia bat.

Izan kontuan Vaskongadetako Gobernu español honek AHTa eraikitze-ko aurrekontua 4.178 milioi eurotan aurreikusi duela, baina hiriburu-
etako sarre-
rak eta beste lineekiko loturak sartu gabe. Oposizioak eginiko ikerketa batek, ordea, AHTaren eraikitzearen kostua 10.000 milioi eurotan kalkulatu du. Ondorioz, 178 ospitale berri eduki ahalko genituzke Araba, Bizkaia eta Gipuzkoara-ko. (Hobeto batzuei ideiarik ez ematea, eraikitzen hasiz gero ez baitago ezi-nezkoa den erokeriarik). Egia esan, diru horrekin guztiarekin ospitale gehiago eduki ahalko genituzke, eta denentzat urte askoan funtzionamendu onena ber-matu.

Honen guztiaren aurrean, ekidinezinak dira hurrengo galderak: nor ez da egon ospitaletan denbora luzez itxaroten? Nork ez du nahi bere eskualdean ospi-tale bat edukitzea? Zergatik bidaiatu behar dugu beste herri batzuetara (Catalun-ya, Valenzia, Madril...) espezialista jakin batzuek artatzeko? Zergatik egon dira azken aldi-
an sektore publikoko mediku eta erizainen hainbeste kexa eta greba?

Bigarrenik, orain arte aipatu ditugun bi proiektuak alderatzen baditugu (AHTa eta ospitale publikoak) hau ondorioztatu genezake:

1. AHTa oraindik eraiki gabeko azpiegitura bat da, eta ospitale publikoak jada funtzionamenduan dauden azpiegiturak dira. Esan dugunez, gaur egun dauden ospitaleak ez dira gizartearen eskaria asetzeko nahikoak. Gainera, badirudi euren funtzionamendua ez dela hoberena.

2. AHTa ez da azpiegitura sozial bat, izan ere bere eskaintza ez da herritar xumeei zuzendua, are gehiago, eraikiz gero gure poltsikoetako diru apurra xahu-tu dezake eta laguntza sozialak kaltetu ditzake.

3. Galdera bat gehiago: noiz onartu genuen AHTa? Zergatik ez diguzue gal-detzen zer nahi dugun, AHTa edo ospitaleak? Horri beldurra deitzen zaio.

Aurreko galdera guztien erantzuna bakarra da: Ajuria Eneko poltronetan eser-

tzen direnek ez dute gure dirua gure ongizatean inbertitzeko inongo interesik, hiritarxumeen oinarrizko ongizatean. Edo baliteke AHTa Bartzelonako ‘x’ izpietan espezialista den mediku batengana arinago heldu gaitezen eraikitzea, eta, nola ez, dena gure ongizateagatik!

Azkenik, galdera bat Ares jn.: Zenbat kostatu zitzaigun guri, hiritar xumeoi, zure menpekoek Lekeition egin zuten emanaldia (eurek erre zituzten zaborrontziak barne)? Eta Berroziko zirkua?

Hobe litzateke zuen inkoherentzia eta zoramen politiko-ekonomiko hori sendatzeko eroetxeak eraikitzea.

Gorka Erdoiza -Durango

AHTa ez Durangon, ez Baionan, ez inon

AHTa, agian, kapitalismoaren ontzi insignia da. Duda barik, ez da euren produkzio eta kontsumorako komunikazio tresna bat soilik, beraien merkantziak, ekoizle eta kontsumitzaileak mutur batetik bestera eramateko modu bat. Gure bizi-era nora zuzentzen ari diren "isla" da: merkatuaren gailentasuna lurraren, basoen, uraren, animalien eta azken ekinaldi bezala, gure gainetik. Erabat aldatzen edo, hobe esanda, gure bizi-era suntsitzen, lurrarekiko benetako kontaktua eta baliabide naturalen azkene-ko autogestio zirrikitua apurtzen. Azken finean, beste hainbaten barruan, eraso bat gehiago da dozenaka barianteen, supersurren, superportuen, errauztegien... aurrean.

Eraso hauen aurrean borroka dugu gure betebeharra, baina ez AHTa edo beste edozein azpiegituren aurka bakarrik. Egoera honetara heltzea erraztu duten egitura sozial eta mentalen aurka ere borrokatu behar dugu.

Ordezkatzen dituen edozein alderdi eta botere erakunderekin, delegazioarekin eta sumisioarekin amaitu beharra dago! Aurkitu gaitzen gu geu eta gutarrak Kapitallismoa amaitu eta desbideratzeko, historiaren norabidea aldatuz! Behintzat, ez gara saiatu barik geratuko, nahiz eta agian ez dugun gure helburua lortuko.

Ez da AHTa soilik! Mundua ulertzeko era bat da! Autoorganizazioa eta ekintza zuzena!

Durangaldeko Asanblada Antidesarrollista

Mikel Deuna dantza taldearen idatziari erantzuna

Ez dut ohiturarik hedabideen bitartez polemiketan sartzeko gaiak ezta baida sakona eta sosegatua behar duenean, bestela, norberaren iritzia muturreratzea baino ez da eta lortzen. Hala ere, Mikel Deuna dantza taldeak adierazitako gauza batzuk zehaztea nahiko nuke.

Lehenengo eta behin, eta horrela jakinarazi nien beraiei, San Migel eguneko gertaera umekeria eta lekuz kanpoko iruditu zitzaidan. Nahi izanez gero, egonezin hori, horretarako arrazoiak baleude, aurretiaz jakinarazi ziezadaketen. San Migel eguna eta plaza (nahiz eta zilegizkoak izan) aldarrikapen-bozgorailu moduan erabiltzea "abantailaz jokatzeko" da, ez baitu ihardespenerako aukerarik ematen. Ultimatumak eta mahai gainean emandako ukabilkadak ez dira biderik egokienak gatazkak konpontzeko.

Mikel Deuna dantza taldearen idatziak ez du inondik inora aipatzen gai honi buruz aspaldian hitz egiten gabiltzala, eta dantzarekin ekainean ere batzartu ginela. Kontua da jarrera maximalistak aukeratzaren direnean konponbidea ez dela erraza izaten.

Udalak ahalegin handiak egin ditu Iurretako elkarte ezberdinek leku duin eta egokia izateko, eta, hartara, Goiuria Kultur Gunea jaio zen. Mikel Deuna dantza taldeari, elkarrekin izandako batzarretan, Goiuria Kultur Guneari aukera bat emateko eskatu diogu, gainerako elkar-teekin batera. Gure aldetik, proposamena ere aurkeztu diegu: dantza saioak egiteko Goiuria Kultur Gunea erabiltzea, eta euren tresnak IMI-ko lokaletan gordetzea.

Dantzarien arabera, espazio, ordutegi, kokaleku... eta hainbat arazo mota dago. Ez naiz beraien erreserbak baloratzen sartuko, baina argi utzi nahi dudana ondokoa da: elkarte guztiekin batu eta arazoak konpontzen saiatu gara, denon artean, baliabideak eskasak direnean, denon artean elkarbanatu egin behar direla kontuan harturik. Zer geratuko litzateke Iurretako elkarte bakoitzak berarentzako lokala eskatuko balu?

Jakin badakigu Goiuria Kultur Guneak ez dituela baldintza guztiak betetzen, baina 230 m2-ko lokalak batzar gelak, lanerako gelak, erabileran anitzeko 40m2-ko bi gela, dutsak, bainuak... ditu. Ordutegia goizeko 8:00etatik gaueko 22:00ak artekoa da, astelehenetik igandera arte, eta, gainera, irizpide malguak aplikatzen dira.

Dantzariak adierazi dute lokal barik daudela eta Udala ez dela inplikatu zeregin horretan, eta hori ez da egia. Egoismo kutsua ez ezik, herriarekiko eta beste elkar-teekiko elkartasun eza eta konpromiso falta ere nabaria da. Herriak beste gabezia batzuk ere baditu, eta Udalak gero eta eskasagoak diren baliabideak modu egokian eta arrazionalen erabiltzen saiatu behar du.

Bolatokiari dagokionez, momentu honetan, ekintza anitzeko tresnak gordetzeko erabiltzen ari gara; eszenatokiak, hesiak, aulkiak, besteak beste (Udala ere lokal faltan dabil). Bolatokia erabiltzea aipatu genuen, material guztia batuko zuen pabilioi bat edukitzeko asmoa geneukalako epelaburrean. Tresnak leku berri eta bakarrean gordetzeko asmoa, ordea, atzeratu egingo da krisialdiak eragina izan baitu Udalean ere.

Prest nago hitz egiteko eta akordioetara heltzeko. Beti ere, kontuan izanda gure lehentasunak herriaren onura eta beharrianak direla, eta baliabideak horietara bideratu behar ditugula.


Iñaki Totorikaguena Sarriñandia - Iurretako alkatea

Urriak 13an iurretarrok ezin dogu gaixotu

Dagokionari: Aldez aurretik esan, ez nagoela norbanakoek jai hartzeko duten eskubidearen aurka.

Urriak 13. Iurretako anbulategira behin eta berriz deitu arren, ez dit inork erantzuten. Horren aurrean bertara hurbiltzea pentsatu dut kontsultarako ordua hartzeko, eta nire sorpresarako, itxita aurkitu dut anbulategia. Zer egun da gaur ba? Pentsatu dut nirekiko, eta orduan konturatu naiz gaur San Fausto dela, ondoko herriko patroia. Horregatik ote dago itxita anbulategia? Bai, antza, hori esan dit batek baino gehiagok. Banekien Urriaren 12a jai inposatua zela euskaldun askorentzat; ez nekiena zen San Fausto ere inposatuko zigutenik gauza batzuetarako. Nire desadostasuna adierazi nahi dut idatzi honen bitartez, ea dagokionak zerbait egiten duen. Beste barik, ondo pasatu Sanfaustoetan, nahi duenak nahi duelako...

Eneko Abasolo Txabarri "Abarkas" - Iurretako



Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurretako - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Zure eritzia, gutuna edo
fotodenuntzia helarazteko
helbideak:

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

kolaborazinoa



Juanito Gallastegi

Durangon San Faustoak dozak gaur

“Durangon San Faustoak dozak gaur” euskarazko esaldia entzun dodanean, pentsetan jarri barik, berez-berez, gauza askoren jabe egin naz:

Badakit, lehenengo, galdera ez dela “non dituk edo non dozak?”. Hori balitz, “Durangon dozak” entzun izango neban. Berez dakit, “noiz dozak” be ez dela itaundu dena. Bestela, “gaur dozak” izango litzateke erantzuna...

Esaldi hori entzun dodanean, jakin dakit itauna “zer dok?” edo “zertzuk dozak” izan dela, eta ez besterik. Besterik balitz, bere erantzun berezia izango leuke.

Baina “dozak” edo “dituk” entzuten dogunean, beste honeek be badakiguz bat-batean, aparteko ahaleginik egin barik:

Entzulea edo erantzuna entzun dauena ez dela emakumea, gizonezkoa baino. Emakumeak “dozan” edo “ditun” entzungo leuke kasu guztietan.

Beste honeek be badakiguz: entzuten dauen gizonezkoa ez dela esaldi hori esaten dauena baino askoz zaharra goa, eta esatariaren eta entzulearen artean konfiantza eta adiskidetasuna dagoela... Bestela, “da” esango leuskio batak besteari.

Entzuten dauena neska ala mutila den, eta zaharragoa ala gazteagoa, eta adiskidea den ala ez, esaldi horretan, beste barik, igartzeko, ametseta hutsa da gure inguruko hizkuntzetan! Ba, euskaraz ez. Pentsetan jarri barik igartzen dogu.

Aberatsa be aberatsa da “hika” edo “hitanoka” jardutea. “Zuka” galdu barik, jakina!

Zergaitik galtzen ete doguz hain erraz gure inguruko hizkuntza ahalmentsuek sumatu be egiten ez ditueen eta guk oraindino bizirik doguzen aberastasunak?



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak
2009ko urriaren 16a - 8. urtea - 347 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurretako	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazioa:
Itziar Belar eta Miren Abasolo.
Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri, Pello Mugarza, Itsaso Esteban, Markel Onaindia
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Maketazioa:
Ainhoa Arizmendiarieta.
Argazkilariak: Iban Gorriti, Ana Dominguez eta Kepa Aginako.

AGENDA >

>ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Urriaren 16an, 17:30ean

BASERRIKO SALTSA

Beste hainbat animaligaz bizi den oilo nagusiari arraultza bat falta jakola-eta, haserre handia sortuko da baserri etxean. Ika-mikak nagusi, elkarren arteko konfiantza galduko dabe. Atzeritik azkeneko heldu den belea da susmagarri nagusi. Berrizko Kultur Etxean argituko da misterioa. Kataluniako La Baldufa taldearen obrak aipamen berezia jaso eban 2004an, Lleidako Txotxongilo Azokan, eduki didaktiko eta eszenaratze lanagaitik.

ANTZERKIA

BERRIZ

- » **'Baserriko saltsa' (La Baldufa)**. Urriaren 16an, 17:30ean, Kultur Etxean.

ERMUA

- » **'El pico de las viudas' (Zutegi antzerkia- Ermuko udal antzerki tailerra)**, urriaren 16an, 22:15ean, Lobiano kulturgunean.

ZORNOTZA

- » **'Karmela, bizitza osorako' (El Retablo)**, urriaren 17an, 18:00etan, Zornotza Aretoan.
- » **'Euskarazetamola' (Bikoteatro)**, urriaren 22an, 11:00etan, Zelaieta



zentroko kontzertu gelan.

BERBALDIA

ABADIÑO

- » **Sexualitatea eta emakumea: 'De la diferencia a la igualdad' (2. zatia)**, urriaren 21ean, 18:00etan, Errota kultur etxean.

BERRIZ

- » **Abentura hilabetea: 'El conquistador del fin del mundo' (Julian Iantzi, Eider Martinez eta Jose Luis Korta)**, urriaren 17an, 19:30ean, Kultur Etxean.



- » **Senide zaintzaileendako tailer psikosoziala**, eguenero, 18:00etan, urriaren 29tik abenduaren 17a arte,

Kultur Etxean. Urriaren 22an, 18:00etan, informatzeko saioa. Izen-emotea Gizarte Zerbitzuetan.

IURRETA

- » **'La prevención del cancer y la función de la autoexploración en el Cancer de Mama' (Oihana Urzaa psikologoa)**. Urriaren 22an, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

BESTEAK

ELORRIO

- » **Ondarearen Europako Jardunaldiak: 'Urkiolako bidea'**. Urriaren 17 eta 18an (688 632 284).

ZALDIBAR

- » **Gaztelekua (12-16 urte)**. Urriaren 16, 17 eta 18an, 16:30etik 20:30era. **Zapatublai**, 17an, 16:00etatik 19:00etara, ikastetxean.
- » **Atxurbidera (782m) mendi irteera**, urriaren 18an, 08:00etan, Udaletxeko plazaatik irtenda.

DEIAK

BERRIZ

- » **'Uribekostan' mendi-ibiliak**, urriaren 21ean. Autobusa 10:30ean, BBKren aurrean. Izen-emotea Jubilatuen Etxean.

DURANGO

- » **Genero biolentziaren aurkako elkarretaratzea**. Eguenero, 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Durangoko Plataforma Feministak deituta (Bilgune Feminista eta Andereak elkarteak).
- » **Odola emoteko aukera**, eguenero, 16:30etik 21:00etara bitartean,

Anbulatorio Zaharrean. Mugarra odol-emaile elkarteak deituta.

- » **Ludotekan izena emoteko**, urriaren 30a bitartean (94 466 91 54 / ludoteka@durango-udala.net).

IURRETA

- » **Anderebideren batzar nagusia**, urriaren 23an, 19:30ean, Ibarretxe kultur etxean. Bazkideendako deia.
- » **Nafarroa Oinezera joateko autobusa**, urriaren 18an, 09:00etan, Andaparapen.

ERAKUSKETA

BERRIZ

- » **'FDV'. Fernando de Vicenteren margoak**. Urriaren 16tik azaroaren 1a bitartean, Kultur Etxean.

DURANGO

- » **'Lau oinak emanda Bertsolaritzari lau begirada'**, urriaren 18a artean, San Agustin kulturgunean.
- » **'Durango Uria' 9. Marrazki Lehiaketara aurkeztutako lanak**, urriaren 18a arte, Ezkurdiko aretoan.

- » **Marrazkiak eta margoak. J.R. Isusi Renteria**. Urriaren 25a arte, Arte eta Historia Museon. Baita **Sanfaustoetarako aurkeztutako kartel iragarleen** erakusketa be.



ELORRIO

- » **'Basoaren azala'. Argazkiak**. Urriaren 14an hasita, Iturri kultur etxean.

ZORNOTZA

- » **Gorka Azaolaren margoak**. Urriaren 31 arte, Zelaieta zentroan.

IKASTAROAK

ABADIÑO

- » **'Sexuaz hitzegingo?'**. Urriaren 23tik abenduaren 18ra, barikuetan, 18:00etatik 21:00etara. Izena emoteko Errota edo Txanporta kultur etxeetan.

BERRIZ

- » **Feminismoari buruzko tailerra**, azaroaren 27a arte, barikuetan, 16:30etik 18:30era, Kultur Etxean (94 682 40 36 / 94 682 45 84).
- » **Sabel dantza**. Izena emoteko urriaren 16a arte, Kultur Etxean. **Salsa, Euskal Dantzak eta keramika ikastaroetan** parte hartzeko, urriaren 22a arte.

- » **Nagusiendako apaingarrien tailerra**, urriaren 15etik abenduaren 17a arte, 18:30etik 20:30era, Jubilatuen Etxean.

DURANGO

- » **Zaindu egitasmoa: Mendekotasuna daukien adinekoen zaintzaileei zuzendutako prestakuntza ikastaroa: Norbere burua zaintzea + Erlaxazio tailerra**. Urriaren 16a arte emon leiteke izena, Udaleko Adinekoen Egoitzan (94 603 00 46).

- » **Euskal Dantzak**. Martitzenero, 19:30etik 21:00etara, Platerue-nean. AIKO taldearen eskutik.

- » **Adinekoendako urte guztiko eta ikastaro laburrak**. Urriaren hasita. Adinekoen Udal Egoitzara jo leiteke (94 620 03 21 / 94 603 00 00 luzapena: 1710). **Tailer psikosoziala**, urriaren 20tik ekainaren 29a arte, martitzen eta egueneroan, 10:00etatik 12:00etara, Adinekoen Udal Egoitzan.

ELORRIO

- » **Dantza ikastaroak: dantza modernoa, sabel dantza, areto dantzak eta Karibeko dantzak**. Urriaren hasita, 10:00etatik 12:00etara, Iturri kultur etxean (94 603 20 32).

ERMUA

- » **Kantu tailerra (Amaia Zubiria)**, azaroaren 2an hasita. Izen-emotea, urriaren 19tik 26ra, Lobiano kulturgunean. Euskal Birusak eratuta (943 179 350 / euskalbirusa@euskalnet.net).



IURRETA

- » **'Bularretik mintzora'**: urriaren 20an, 17:30ean, **hezitzaileendako**; 21ean, 18:00etan, **familiarendako**, Liburutegian (94 681 27 26/ biblioteca@iurreta.net).

ZORNOTZA

- » **'El sonido y la vibración como expresión en la creatividad y en la salud' (Carmen Romanelli)**. Urriaren 17an, 10:30etik 20:30era, Zelaieta zentroan. Fibromialgiadun Emakumeen Elkarteak eratuta. Izena-emotea Zelaieta zentroan.

IPUINAK

ZORNOTZA


- » **Ipuin kontalaria**, urriaren 17an, 12:00etan, Liburutegian.

JAIK

DURANGO

Sanfaustoak

- » **DYaren ate irekiko jardunaldia**, urriaren 16an, 17:00etan, Ezkurdin. **'On egin mon amour' (Teatro Salitre- Teatro Mutante)** kale antzerkia, 18:30ean, Andra Marian, eta, **'Kazpuloa' performancea (Koyame)**, San Agustinen (19:00etan, 20:00etan, 22:00etan eta 23:00etan be bai).



- » **'Balzac y la pequeña costurera' pelikula**, urriaren 16an, 19:30ean, San Agustin kulturgunean. Uztartuz elkartearen eskutik. **Nesken fanfarrea**, 20:30ean, Alde Zaharrean; 22:00etan, Ezkurdin, **Aiko dantza taldeagaz erromeria**.

- » **Bertsos Jazz**, urriaren 16an,



- 22:30ean, Andra Marian. **Tres 41 + The Riff Truckers + Lor**, 22:00etan, Txosnagunean.

- » **Bilbo metropoliko lurralde zati planari buruzko berbaldia**, urriaren 16an, 17:30ean, Sapuetxe gaztetxean; 21:00etan, **kontzertua: Terror y miseria + Gorroto**.

- » **Diana txistulariekin**, urriaren 17an, 07:00etan. **'Zezenak dira' sokamuturra**, 07:30ean. **Tabira musika bandagaz kalejira**, 10:00etan, San Fausto auzoan (Alde Zaharretik Ezkurdira, 11:00etan); 11:45ean, **emonaldia**, Josemiel Barandiaran egoitzan.


- » **Nekazaritza Azoka**, urriaren 17an, 11:00etan, Merkatu plazaren inguruan. Baita **Bizkaiko Artzain Gazta Txapelketa** be. Andra Marian, **umeendako mozerro tailerra** Txatxilipurdi taldeagaz.

- » **Skate erakustaldia**, urriaren 17an, 11:00etatik 19:00etara, Ezkurdin. BBK Skate eskolaren eskutik.

- » **VI. San Fausto Graffiti Lehiaketa**, urriaren 17an, 12:00etan, Ezkurdin; sari banaketa, 19:00etan. **Zo Zongó taldeagaz batukada**, 12:30ean, eta, 13:00etan, **umeen mozerro desfilea**, Andra Marian.

- » **Federatu bakoentzat xake txapelketa**, urriaren 17an, 16:30etik 20:30era, Ezkurdin; 18:00etan, Andra Marian, **'Mugi, mugi' haurrendako dantzaldia**.

urriko agenda



Urriak 18-24-25-31 • Iurreta Txirrindulari Elkarteak 09:00 Iurretatik Iurretara. (90-100km)

Urriak 18 • Mikel Deuna Kultur taldea "Nafarroa Oinez". Autobusa: Erroldatuak 6e, besteak 12e 09:00 Irteera Andaparapen / 18:30 Itzulera Etxarri Aranatzan

Urriak 20 • Iurretako Herri Biblioteka 17:30 Bularretik Mintzora, hezitzaileentzat 19:00 Irakurleen txokoa gaztelaraz

Urriak 21 • Iurretako Herri Biblioteka 18:00 Bularretik Mintzora, familiarentzat 19:00 Irakurleen txokoa euskeraz

Urriak 22 • Gizarte Ongizatea 19:00 Hitzaldia: "Prevención del Cáncer y la función de la autoexploración en el Cáncer de Mama". Hizlaria: Oihana Urzaa (Psikologoa)

IURRETAKO UDALA

» **II. Tortilla Lehiaketa**, urriaren 17an, 18:30ean, Merkatu Plazan, eta, 20:00etan, **‘Doctor Ficante’ (Los Kikolas)** zirkua, Ezkurdin. **Sugarri fanfarrea**, 21:00etan, Alde Zaharrean.



» **Graffiti tailerra**, urriaren 17an, 18:00etan. Sapiutxe gaztetxean; 21:00etan, **kontzertua: Pixontxis + Talde Sorpresa**.

» **Ipuin kontalaria**, urriaren 17an, 17:00etan, Txosnaguneko parkean. **Kiki, Koko eta Moko pailazoen ‘Txintxirixin Bakea Egin’ ikuskizuna**, 18:00etan, eta, 20:00etan, **manifestazinoa**.

» **Brankan + Banda Batxoki + Kop**, urriaren 17an, 22:30ean,



Txosnagunean. **Geiser orkestra**, 23:00etan, Ezkurdin, eta, Landako Gunean, **El sueño de Morfeo + Nahixan**. Goienkalen, 00:00etatik 03:00etara, **alkoholemia kontrolaren stand informatiboa**.

» **Diana txistulariekin**, urriaren 18an, 07:00etan. **‘Zezenak dira’ sokamuturra**, 07:30ean. **Haur-parkea**, 10:00etatik 14:00etara, Ezkurdin. **Bizikleta jaia**, 10:00etan, Frai Juan Zuamarraga kalean, eta, 11:30etik 14:00etara, **Ecojuga tailerra: hondakinekin gauza erabilgarriak egiteko tailerra**, Udaletxeko plazan (16:00etatik 19:30era be bai).

» **Poniak**, urriaren 18an, 12:00etan, Landako Gunean; 17:30ean, Ezkurdin, **‘Super Plast’ (Hortzmuga)** umeendako antzerkia. **Nafarroako jotak (Alma Navarra)**, 18:30ean, Andra Marian, eta, Udaletxeko plazatik Landakora,



19:30ean, jaien bukaera: **Biznietos de Celedón fanfarreagaz eta Acrovisión ikuskizunagaz agurtuko dabe Patxikotxu**.

LEHIAKETA

BERRIZ

» **I. Eskultura Lehiaketa**. Proiektua aurkezteko azaroaren 2tik 27a arte, Kultur Etxean. Saria: 18.000 euro (94 682 40 36 / 94 682 45 84).

DURANGO

» **‘Azaroak 25, emakumeenganako indarkeriaren aurkako kontaketa laburrak eta olerkia’ lehiaketa**. Urriaren 30a arte helerazo leitekez Andragunera. Uriko eskoletako haur eta gazteak eta kanpoko eskoletako durangarrek parte hartu leikie (13-18 urte); 18 urtetik gorako sailean edonork. 100 eta 200 euro

LITERATURA

IURRETA

» **Munduko emakumeen literatur tailerra**. Astelehenero, 18:15ean, astelehenero, Udal Liburutegian.

» **Haurtxoen irakurketa kluba**, urriaren 16an, 17:30etik 18:30era, Bibliotekan. **Helduentzat Irakurleen Txokoa**, urriaren 20an, 19:00etan, gazteleraz; 21ean, euskaraz.

MUSIKA

ERMUA

» **Jazz-blues zirkuitua: Bill Lyerly**



Urriaren 17an, 23:00etan

EL SUEÑO DE MORFEO ASTURIARREN DOINUAK SANFAUSTOETAN

Maiatzean kaleratutako ‘Cosas que nos hacen sentir bien’ lana aurkeztuko dau El Sueño de Morfeo talde asturiarrak, Landako Gunean. Mutriku eta Ondarroako lagunek osatzen daben Nahixa taldeak jo ondoren emongo dau kontzertua musika talde ezagunak, Sanfaustoak atxaki. 2002an sortu eben El sueño de Morfeo, eta harrezkero lau disko kaleratu ditue. Asturiarren jarraitzaileek aukera ezin hobea izango dabe, beraz, zapatu honetan, Durangoko Landako erakustazokan. Kontzertua doakoa da.

Band (AEB), urriaren 17an, 20:00etan, Lobiano kulturgunean.

» **Alboka musika eskola**, urriaren 18an, 13:00etan, Orbe Kardinalan.

ZORNOTZA

» **Kontzertu didaktikoa: ‘Schubert’ (Improntu taldea)**, urriaren 18an, 19:00etan, Zelaieta Zentroan.

ZINEKLUBA

BERRIZ

» **‘Frozen River’**, urriaren 18an, 19:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO

» **‘Frozen River’**, urriaren 22an, 20:30ean, Zugaza Zineman.

ZORNOTZA

» **‘Still walking’**, urriaren 20an, 20:00etan, Zornotza Aretoan.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza
G-Force: Licencia para espiar (3D)
Zuzendaria: Hoyt Yeatman
barikua 16: 19:00 / 22:00
zapatua 17: 17:00 / 19:30
domeka 18: 17:00 / 19:30
astelehena 19: 19:00



Viki el vikingo (Digitala)
zapatua 17: 22:30
domeka 18: 22:30
astelehena 19: 22:00
martitzena 20: 20:00

ELORRIO

Arriola antzokia
Desgracia
Zuzendaria: Steve Jacobs
zapatua 17: 22:30
domeka 18: 20:00
astelehena 19: 20:00



Umeendako zinema

Ice Age 3
domeka 18: 17:00

ZORNOTZA

Zornotza aretoa
Enemigos públicos
Zuzendaria: Michael Mann
zapatua 17: 22:30
domeka 18: 20:00
astelehena 19: 20:00



Umeendako zinema

Los mundos de Coraline
domeka 18: 17:30

BOTIKAK

Barikua, 16
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
09:00-22:00
• Larrañaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
Zapatua, 17
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
09:00-13:30 (*14:00)
• Navarro / Mugica / Campillo / Sagastizabal / San Roma / De Diego / Unamunzaga / Balenziaga (Durango)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)*
Domeka, 18
09:00-09:00
• Navarro (Artekale 6 - Durango)
Astelehena, 19
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
09:00-22:00
• Eguren, Cristina (Trañabarren 15 - Matiena)
Martitzena, 20
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurrondo 22 - Durango)
Eguaztena, 21
09:00-09:00
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
09:00-22:00
• Eguren, Isabel (Torresolo 4 - Abadiño)
Eguena, 22
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24- Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
GARRAIOAK
Euskotren.....902 54 32 10
Durango94 681 02 32
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
TAXIAK
Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia.....946 811 001
Goco Tour.....946 202 860
Tele Taxi944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
Iurreta946 201 565
Taxi auzunea688 618 690

UDALAK
Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
Iurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16
UDALTZAINGOAK
Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
Iurreta94 620 08 88
BESTELAKOAK
Arriola94 658 31 92
San Agustin94 603 00 21
Zornotza Aretoa94 630 01 68
Gazte informazioa 94 603 00 30

Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim.94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51
KIROLDEGIAK
Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango
(Landako).....94 621 51 30
Durango
(Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

14° BARIKUA
Eguraldiak hobera egin eta eguzkia eta ostarte zabalak izango doguz ikusgai. Temperaturak oraindino baju samar ibiliko dira. Haizeak iparraldetik joko dau, giroa gehiago freskatuz.
17° ZAPATUA
Ostarteak izango dira nagusi baina lainoak be agerian izango doguz.Temperatura maximoak gorakada xume bat izango dau, baina minimoak be beherantz egingo dau. Haizeak ipar-ekialdetik joko dau.
17° DOMEKA
23° ASTELEHENA
26° MARTITZENA

Dima Golf

PITCH & PUTT

golfa zure neurria!

EZAGUTU PITCH & PUTT

Dima Golf-ari topaketa eta dibertimendurako eremua eskaintzen dizugu berehala mendea hartuko zaituen kirolarekin Pitch & Putt.

Zer da Pitch & Putt?

Golfelik datorren kirol modakoa da, bola zuloan sartzeko hiru kolpe soilik eman behar dira. 40tik 120 metro bitarteko tartea gaituz.

Joko berezia, zintzaragarria da, eta pixkana milaka zailtasun erakartzen ditu mundu osoan.

Saiatu nahi?

Has zaitaz gure Praktikalarako kantxan zure swing-ari ekiten.

Gura baduzu, Pitch & Putt eskola jotzen trebatzen lagunduko dizuten profesionalak baditugu.

Gure abonu programen bitartez ere, abantaila handiak eta deskontu bereziak izan ditzakezu.

zatoz eta gustora informatuko zaitugu!



- **Pitch & Putt eremurik onena da**, zatoz Pitch & Putt zer den ezagutzera, Kantauri aldeko zelairik zabalena, eta 18 zulo dituen bakarra Euskal Herrian.
- **Zuretzat diseinatutako zelaia**, ibilbidea Pitch & Putt kirola Katalunian sustatu duen Martin Whitelaw irlandarrak diseinatu du, eta zailtasuna eta erosotasuna orekatzea lortu du, jokoaren erronka dibertigarria izan dadin beti.
- **Golfa denon eskura**, Pitch & Putt-arekin edozein mota, adin eta baldintzako jokalariek izugarri gozatzen dute.
- **Inguru paregabea**, Gorbeia eta Urkiolako parke naturalen artean gaudenez, Dima Golf topaketa eta dibertimendurako eremu paregabea da, ikuspegi lasagarri eta toki turistiko interesgarrien artean.
- **EKO-eremua**, zelaiaren ibilbidea sagarrondoaren artean egin da, nekazaritzako ustiapena errespetatuz eta naturako baliabideak arduraz erabiliz.
- **Jatetxea**, sagarrak bildu eta sagardo naturala egiten dugu hemen; gero gure jatetxe-sagardotegian ematen dugu, betiko sukaldaritzako janariekin.
- **Etxean zaude**, Unerik garrantzitsuenak ospatzeko aukera eskaintzen dizugu, talde, familia eta enpresetako ekitaldietarako aproposa den giro lasaian. Eskatu informazioa, ondo emango dugu neurria.



DIMA GOLF CENTER Km.38 Dima - Otxandio Errepidea (Dima gana)

Tlf. 94 404 61 47

www.dimagolf.com

KIROLAK >



Argazkia: Kepa Aginako

Lehenengo bi partiduak galdu ondoren, Kurutziagak denboraldiko lehenengo garaipena lortu zuen joan zen asteburuan. Noren kontra, eta Meatzari liderraren kontra; zelan, eta 8-2 jipoituta. Euskal Ligara igo berritan, taldea gura eta ezin zebilen. Abiapuntuan, baina abiatu ezinda. Eta gutxien itxaroten genuenean, giltza aurkitu eta ziztu bizian abiatu dira.

Meatzariren kontrako garaipenak irakasbide bat ere utzi du: "Oso itxura ona eman genuen, eta partidu horrek aurrerantzean jarraitu behar dugun bidea finkatzeko balio behar du", azaldu du Iker Saenz de la Cuesta entrenatzaileak. Gainera, hiru puntuak baliotsuagoak dira taldea osatzeko izan zituzten ara-

Azkenik, abiatu dira

zoak kontuan hartuta. Lehenengo taldeko bost jokalarik ezin izan zuten jokatu, eta bigarren taldeko beste lau deitu zituzten: Txitxin, Ledo, Jon Ander eta Jelko. Guztiek ere ederto erantzun zioten erronkari. Horrez gainera, Iker Arriaga jokatzeko moduan zegoen, denboraldian lehenengo biderrez.

Partiduak Kurutziagaren aurtengo indarguneak bereizteko zantzuak eskaini zituen. Esaterako, Beñat Rivasek eta Iker Saenzek eurenak eta bi egin zituzten, eta elkarrekin oso ondo konpontzen direla erakutsi. Rober Pérezek egindako geldituek ere atepea ondo segurtatuta dutela erakusten dute.

Jokoari dagokionez, durangarrek lehenengo zatian bidera-

"Partidu honek jarraitu beharreko bidea finkatzeko balio behar du"

tu zuten partidua (4-2). Bigarrenen Gallartako taldeak aurrera egin zuen, eta kontraerasoan txikitu egin zituen Kurutziagak.

Asteburu honetan Kukuia-garen kontra jokatu dute, etxetik kanpora. Etxebarriko taldeak ere garaipen bat du, eta beheko postuetan dago. Behartsuen partidua izango da, eta gureak bolada gozoa aprobeztatzen saiatuko dira. ■ J.D.

24 Zestolari onenak lehiatu dira Jai-Alain

Durangoko Ezkurdi Jai-Alaik binakako txapelketako finalerdiak hartu ditu asteon. Zestalariek ikuskizun aparta eskaini dute, eta emozioak azken unera arte iraun du

25 Iurretako eraberritua

Emakumeek asteburuan ekingo diote ligari. Hasierako hamaikakoan ohikoak ziren hainbat jokalarik taldea utzi dute; etorri diren berrien errendimendua ikusteke dago

Emozioa gainezka izan dute zesta finalerdiek

Ezkurdi Jai-Alain erabaki zituzten binakako txapelketako finalistak



Pilotariek gogotik egin zuten lan, eta zaleek partidu bietan gozatu zuten. Argazki Press

Gaur Markinan binakako txapelketako finala jokatu duten lau pilotariak Durangon lehiatu ziren, astelehenean eta martitzenean, finalerdi ikusgarrietan. Forondak eta Lópezek zein Egi-guren II.ak eta Felixek gogotik lan eginda lortu zuten finalerako txartela. Kantxako ikuskizunaren parekoa izan zen harmailetakoa; zaleek egun handietako giroz jantzi zuten Ezkurdi Jai-Alai.

Asteleheneko partiduan Foronda eta Lópezek 35-33 menderatu zituzten Lander eta Alliez. Finalistak partidu osoan zehar aurretik joan ziren markagailuan, baina alde erabakiorrik lortu gabe. Bikote bakoitza gus-tura sentitu zen bere pilotarekin, eta 18nakoa izan zen lehenengo berdinketa. Ondoren, aurretik gertatu legez, irabazle izango zirenek lau-bost tantoko aldea hartu zuten. 30-24 zeudela, par-

tidua ia amaituta zegoela uste zuen batek baino gehiagok, baina Olha eta Irastorza 33-31 hurreratu ziren lehenengo, eta 34-33 ondoren. Azkenean, Lópezen eskuinkada indartsu batek erabaki zuen partidua.

Martitzenean, Egi-guren II.ak eta Felixek 35-32 kanporatu zituzten Lander eta Alliez. Partiduaren lehen zatian bikote bakoitzak etekina atera zion bere pilotari, eta txandaka tanto ilarak lortu zituzten. Azken txan-pan, galtzeko beldurra nabaria zen, eta piloteo luzeak ikusi ziren. 27, 28, 29 eta 30na berdindu zuten. Orduan, Egi-guren II.a eta Felix 34ra joan ziren, batez ere, Berriatuko atzelaria-ren lan sendoari esker. 47 urte-gaz oraindik sufritzeko ahalme-na baduela erakutsi zuen, eta bere jarduna erabakiorra izan zen partidua irabazteko. ■ J.D.

Lau t'erdikotik kanpora geratu da Berasaluze IX

“Uda oso ona osatu dut, baina gehien behar nuenean ez zait ezer atera”, dio berriztarrak

Amestea libre da eta Berrizen batek baino gehiagok imajinatu-ko zituen Asier Berasaluze eta Pablo Berasaluze, elkarren aurka, lau t'erdiko ligaxka desiratu-rako borrokan. Beste batean beharko du. Iñigo Leizak 22-15 kanporatu zuen Berasaluze IX.a, Gernikako Santanape pilotale-kuan. Beraz, beste Berasaluzek, VIII.ak alegia, Gonzalez edo Lei-

12nako berdinketaren ondoren, Leiza 21era joan zen zuzenean, partidua erabakita utziz

Binakako txapelketako finala gaur 22:00etan jokatu dute, Markinako pilotalekuan

47 urte-gaz, Felixek ederto eutsi zion partiduari; bere lana erabakiorra izan zen

zaren kontra borrokatuko du azaroaren 1ean.

12nako berdinketaren ondoren lemoaztarra 21era joan zen, eta hortxe erabaki zuen kanporaketa. Berasaluzek ez zion partiduari neurririk hartu, eta bererik eman ez izanak penatzen du: “Izaten dira ezerk irtetzen ez duen partidu batzuk, eta horrelakoxe bat izan nuen. Pena da. Uda osa ona osatu dut, joko onagaz, baina gehien behar nuenean ez dut neurerik eman”.

Datozen asteetan binakako norgehiagoketan zentratuko da berriztarra. Domeka arratsaldean Zarautzen jokatu du, Eula-te bizkarzain duela, Titin III.aren eta Cecilioren kontra. ■ J.D.

Iker Saenz de la Cuesta
• Areto futbol entrenatzailea



Bazen sasoia

Bazen sasoia! Asko borrokatu ondoren, lortu da areto-futbol entrenatzaile titulua Durangon ateratzeko aukera. Uda aurretik sekulako mugimenduak egin ziren aukera hori lortzeko, eta joan zen astean kirol irakaskuntza eskola (Kirolene) klaseak emoten hasi zen. Durangora ikasketa horiek ekartzeko borroka asko egin beharra egon da, batez be, entrenatzaile eskolatik ipinitako zangotrabak gainditzeko; horre-gaitik, eskertzekoa da Kirolenek egindako apustua (Elder Gorrochategui be aipatu behar). Orain bi aukerak izango doguz Bizkaian ikasketa honeek egi-teko (Durangon eta Bilbon, azken hori oraindino kolokan dagoen arren).

Kurtsoak badaroa aste oso bat martxan, eta ikasgai guztiak emoteko ikasleei eskaintzen deuse-zen erraztasunak nabariak dira; izan be, ikasle guz-tiak lanetik irten eta gero joaten dira klasera. Gaine-ra, ikasleak entrenatzaile famatu batzuen formazioa jasoko dabe, nahiz eta oraindino ezin dogun konfir-matu izenik (zurrumurruei kaso eginez, Lozano, Espainiako hautatzaile ohia, edo Candelas, Intervi-Boomerang taldean ibilitako entrenatzailea, etor dai-tekez hitzaldiak emotera).

Eskolek urte bi iraungo dabe, eta ondoren, (azterketa guztiak gaindituta) entrenatzaile titulua lortuko da. Aspalditik espero zen formazio publiko hori, eta honekin beste bultzada txiki bat emongo jako areto-futbolari, Bizkaia entrenatzaile preminan dagoelako, txikitatik gazteak ezin dabelako entrena-tzaile adituak izan.

Mila esker Kiroleneri eskainitako irakasleria eta baliabideengaitik, behar genduzen-eta.

Etxean galdu gabe jarraitzen du Kulturalak

Aurten hirugarren biderrez, bana berdindu dute etxean, oraingoan Elgoibarren kontra

Durangoko Kulturalak bana berdindu zuen Elgoibarren kon-tra, herenegun, Tabiran jokatu-tako partiduan. Emaizari alde positiboa ikusi gura dionak esango du oraindino inork ezin izan dituela Durangotik hiru puntuak eroan, eta irabazi ezin denean, gutxienez, ez galtzea garrantzitsua dela; liga amaie-ran puntu horien babesa igarri egiten delako.

Balorazio ezkorragoa egin duenak, banako berdinketa dagoeneko hiru bider eman dela pentsatuko du, eta horiek berdinketa lartxo direla etxetik kanpora hain zurrin dabilen tal-dearentzat. Izan ere, kanpoan hiru puntu bakarrik batu dituzte lau partidutan. Etzi Portugale-ten jokatu dute. Hauek ez dabil-tza hobeto. Etxean ez dute partidurik irabazi. ■ J.D.



Portugaleteren kontra jokatu dute etzi. Kepa Aginako

Aurpegi berri askorekin, mailari eustea du helburu lurretakok

Bost jokalarik utzi dute taldea, eta bostek hasierako hamaikakoan jokatu ohi zuten



lurretakok Pauldarrak taldea hartuko du bihar. Judit Fernandez

San Fausto Txapelketako finalak, etzi

Binakako Zesta Txapelketako finalerdiak hartu ondoren, aste-buruan beste hitzordu aipagarri bat dago Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan. Domekan, 11:30ean, XXVI. San Fausto Zesta Txapelketako finala jokatu dute Andoainek eta Gernikak Durangoko frontoian. Andoaingo bikotea Lizasoainek eta Maizelek osatzen dute; Gernikako bikotea, berriz, Bidaburuk eta Mancisidorrek. Andoaindarrek Gasteizko taldea kanporatu zuten finalerdietan. Gernikak Zumaia-ko bikoteari irabazita lortu zuen finalerako txartela.

Finalaren aurretik beste partidu bat dago. Kluben Arteko Bizkaiko Txapelketaren barruan, Getxok eta Markinak neurtuko dituzte indarrak. ■ J.D.

Andoainek eta Gernikak jokatu dute San Fausto Zesta Txapelketako finala

lurretako igoera postuan dago gizonetan

Emakumeen taldeak mailari eustea badu helburu, gizonenak justu kontrakoa erakutsi du lehen lau jardunaldietan: okerrik ezean goikoekin borrokona ibiliko dela. Orain arte, hiru partidu irabazi eta bat berdindu du eta igoera postuan dago Urdulizen atzetik.

Liga hasierako defentsa sendoari gol usaimena gehitu dio orain lurretakok

Lehen hiru neurketetako gako defentsa lanean egon bazen, joan zen asteburukoan erakustaldi galanta eman zuten erasoan: 5-1 menderatu zuten Uritarra. Aranguren bi sartu zituen eta Urtzik, Abasolok eta Patxi bana. Asteburuan Atxuklaurren konbtra jokatu dute. Orozkoko taldeak partidu bat irabazi eta hiru galdu ditu orain arte. ■ J.D.

Bihar ligari ekingo dio lurretakok Lehenengo Erregionalean. Aurreko denboraldiarekin alderatuta taldeak aldaketa sakona jasan du. Taldearen bizkarrezurra osatzen zuten hainbat jokalarik taldea utzi dute eta etorri diren berriek denbora behar dute egokitzeko. Horiek horrela, Endika Romero entrenatzaileak badaki, lehenengo jardunaldietan behintzat, "igarriko" dutela joan diren hutsunea eta, horregatik, "mailari eustea" finkatu du helburu moduan.

Joandako jokalarietatik Deyanira Nuñezen aldaketa azpimarratzeko da. lurretakotik Eibarrera joan da; beraz, aurtan emakumeen Superligan jokatzen dihardu, Espainian dauden talderik onenen kontra.

E.Romero: "Jokolari garrantzitsuak joan dira eta, printzipioz, mailari eustea dugu helburu"

lurretakok aurrendenboraldian jokatu dituen partiduek zapore gazi-gozoa utzi dute. Batzutan emandako maila onik ez dute besteetan erakutsi. Joan zen eguaztenean Arratiaren kontra nabarmen galdu zuten: 3-0.

Bihar Pauldarrak hartuko dute Larrakozelain. Barakaldoko

taldea ere iaz igo zen Lehen Erregionalerako eta bete-beteko partidua espero dute. Izan ere, Romerok onartzen duenez, "aurten partidu guztiak izango dira gogorak".

Elorrioren talde bakarra

Bigarren Erregionalean Elorriok ere aurpegi berriz betetako taldea zelairatuko du domekan ligako estraineko partiduan, baina beste arrazoi batzuegatik. Orain arte, Elorriok talde bi izan ditu: nagusiena eta kadete-gazte mailakoa. Jokalari faltagaitik talde bietako jokalariek nagusien taldean batu dituzte eta gazte mailakoa desagertu egin da. Beraz, Zornotzari kontra egingo dion hamaikakoak esperientzia eta gaztetasuna uztartuko ditu. Entrenatzailea ere berria dute aurtengo denboraldian: Aitor Azpitarte.

Aurrendenboraldiko lau partiduetan maila bat goragokoen kontra jokatu dituzte eta, oro har, balorazioa ona da: bi garai-pen (Artibainen kontra biak) eta bi porrot (lurretakoren eta Arratiaren aurka). ■ J.D.

Jokalari faltagaitik, Elorriok gazteen taldea kendu du eta nagusien batekin geratu dira

Salaberria eta Landaburu elorriarrak Olazarren

XXII. Olazar Txapelketako hiru-garren jardunaldiari dagozkion partiduetan jokatu dituzte datorren egunean eta tartean elorriar bi ariko dira. Lau t'erdiko lehenengo partiduan Salaberria elorriarrak Aurtenetxe lezamarraren kontra neurtuko ditu indarrak.

Binaka beste partidu bi jokatu dituzte. Lehenengoan gipuzkoarren arteko lehia egongo da: Larrañaga Uzkudunen kontra. Bigarrenegun Landaburu elorriarrak Elezkano zaratamorraren kontra jokatu du. Partiduetan 21:30ean hasiko dira. ■ J.D.

Agenda

FUTBOLA OHOREZKO MAILA Berriz - Derio Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun LEHEN ERREGIONALA Elorrio - Zamudio B Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden HIRUGARREN ERREGIONALA Ezkurdi - Leketio B Domekan, 16:00etan, Arripausuetan Extremefio - Zorrontzako Zapatuan, 18:00etan, Tabiran
ARETO FUTBOLA NAZIONAL B MAILA Elorrioko Buskantza - Astraburuko Zapatuan, 17:45ean, Elorrioko kiroldegian EUSKAL LIGA Sasikoa - Aurrera Vitoria Zapatuan, 19:30ean, Landakon GOREN MAILA Mailabia Bastida - Iturrlondo Domekan, 17:30ean, Zaldibarko kiroldegian LEHEN ERREGIONALA Presion Break - Sumi Muguru Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun Abadiñoako Gaztetxe - Eulen Bermeo Zapatuan, 15:05ean, Elorrioko kiroldegian BIGARREN ERREGIONALA Mendibeltz - Usansolo Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian Dantxari - Gernika B Zapatuan, 17:30ean, lurretako Lanbide Heziketako Institutoan Gu Lagunak - Bikaina Domekan, 12:00etan, Landakon kiroldegian
ERRUGBIA EUSKAL LIGA Durango Ilarduya - Bera Bera Zapatuan, 11:30ean, Arripausuetan Elorrio - Bera Bera Zapatuan, 16:00etan, San Roken
SASKIBALOIA LEHEN ERREGIONALA Zaldia - Barrena Berri Zapatuan, 18:30ean, Zaldibarko kiroldegian
PILOTA SAN FAUSTO ZESTA TXAPELKETA (finala) Lizasoain - Maikel / Bidaburu - Mancisidor Domekan, 11:30ean, Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan

SAILKAPENAK >>

Futbola / 3. maila / 4. taldea / gizonak		Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / gizonak	Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / emakumeak
1- Real Sociedad B.....20	15- Santurtzi.....9	1- Baskonia Fund.....2 (+10)	1- Ardoi3 (+98)
2- Beasain.....18	16- Portugalete.....9	2- Legarzia.....1 (+11)	2- Deusto Loliola .3 (+58)
3- Amorebieta.....16	17- Retuerto.....8	3- Padura.....1 (+10)	3- Bera Bera ...3 (+53)
4- Baskonia.....16	18- Eibar.....7	4- Bide Bide.....1 (+3)	4- Obenasa2 (+16)
5- Zalla.....16	19- Lagun Onak.....6	5- Bidegintza.....1 (-2)	5- Cafés Aitona .2 (+16)
6- Gemika.....15	20- Salvatierra.....6	6- Tabirako.....1 (-4)	6- Las Gaunas ...2 (-3)
7- Aretxabaleta.....15		7- San Ignacio.....1 (-6)	7- Elexalde2 (-7)
8- Arenas.....14		8- Seky.es.....1 (-6)	8- Tabirako2 (+29)
9- Amurrio.....12		9- Easo.....1 (-6)	9- Arabako EHU .1 (-12)
10- Zamudio.....11		10- Zornotza.....0 (-10)	10- Abaroa1 (-22)
11- Leioa.....11			11- Getxo1 (-37)
12- Elgoibar.....11			12- Gemika1 (-11)
13- Kulturala.....10			13- Irlandesas0 (-37)
14- Laudio.....9			14- Atletico SN0 (-37)
			15- Artieda0 (-60)
			16- San Ignacio0 (-66)



Emakumeen Tabirakok eta Gemikak partidu bat gubiago jokatu dute.

AMALURRA>



Mancomunidad de la Merindad
de Durango
Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa



Automobil egokiak erosi eta ekologikoki gidatzen ikasi guran

Eraginkortasun handiko 600 ibilgailu baino gehiago saltzea eta merkaturatzea itxaroten dabe planaren arduradunek

Gidatze ekonomikoaren bidez, erregaiaren kontsumoa %12 gitxitzen da, eta CO2 emisinoak be murrizten dira

Automobil-parkearen Renove planak abendura arte iraungo dau. Berrizen, gidatze ekonomikorako ikastaroa egingo dabe

Automobil eta ibilgailu komertzialen parkea modernizatzea helburu, energia-eraginkortasun handiko eta bioerregaien ehuneko handiz elikatutako kotxeak erosteko diru-laguntza emongo dabe, Automobil-parkearen Renove planaren bitartez. Renove honetara bideratutako aurrekontua 250.000 eurokoa da, eta eskabideak aurkezteko azkeneko eguna 2009ko abenduaren 31a da; edo aurrekontu hori amaitu artekoa.

Diru-laguntzak jasotzeko tramiteak bi bidetik egin leitez: alde batetik, Automobil-parkearen Renoveagaz bat egingo daben kontzesionarioen bitartez, saltzeko unean zuzenean deskontua aplikatuko dabe; eta bestetik, Energiaren Euskal Erakundean (EEE/EVE) eskabidea aurkeztuz.

Ibilgailu bakoitzeko emongo den diru-laguntza 400 eurokoa da, eta ibilgailuek honako ezauzgarri jakinak izan behar ditue. 120 g CO₂/km baino emisino gitxiago eragiten dabenak sartzen dira, esate baterako, talde horretan. Diesel propultsino bidezko ibilgailuak be sartzen dira, erregaiaren erabileran %30 gitxienez biodiesela izateko fabrikatzailearen oniritziagaz. Otto (gasolina) propultsino bidezko ibilgailuagaz be antzekoa gertatzen da; kasu horretan, erregaiaren erabileran % 85 gitxienez bioetanola izateko fabrikatzailearen oniritzia jasota eduki behar da.

Ekimen honi esker, eraginkortasun handiko 600 ibilgailu baino gehiago saltzea eta merkaturatzea itxaroten dabe planaren arduradunek.

Gidatze ekonomikoa

Bestalde, Berrizen gidatze ekonomikoagaz lotutako ikastaroa antolatu dabe urriaren 24rako. Ikastaro teoriko-praktikoa izango da, lau orduko iraupenagaz. Goizean, 10:00etatik 14:00etara egingo dabe lehenengo saioa, eta bigarrena arratsaldean, 16:00etatik 20:00etara. Udalak antolatu dau ekimen hau, Energiaren Euskal Erakundeagaz elkarlanean.

Gidatze ekonomikoaren bitartez, erregaiaren kontsumoa %12 gitxitzen da, eta CO₂ emisinoak be murrizten dira, inguruneagazko ekarpena eginez. Gidatze oldarkorra ekiditen da, eta martxa luzeak erabiltzea gomendatzen da. Mantenu kostuetan aurrezteko lortzen da, gainera, eta seguruago gidatzen da, lasaiago gidatzen da-eta.



IRAGARKI TAULA

